

GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia --Goierriko Aldizkaria-- dohain banatzen da


GOIERRITARRA HILABETEKARIA. 36. zenbakia. 93ko uztaila.

Jendearen esanera




ORDIZIAKO UDALA

Jai egun zoriontsuak



opa dizkizue denoi

ORDIZIAR GUZTIEN ZERBITZURA



EUSKALDUNON
G I D A
KOMERTZIALA

ESKURA EZAZU
*Goierriko Udaletxeetan
edota*
GOIERRITARRAren
egoitzan, Ordizian

*ipin ezazu zure
telefonoaren ondoan !*



GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierriko Aldizkaria

36. zenbakia. 93.eko Uztaila. Debaldeko alea. Tirada: 3.000 ale. 2.600 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre-etxea, 1. pisua (Correos-gaitean). Tfna: 889612. Faxe: 889545. 124 posta kuxta, Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal gehienek dirulaguntza du.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loizabaz Agirre, Nekane Altuna, Rosa Amundarain, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Ale honetako kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Xabier Gartzia, Jexux Intsausti, Iñaki Amundarain, Marijoxe Madariaga, Zirika irratia, Jose Zufiaurre, Arkaitz Arruabarrena, Kilometroak 93, Mikel Aramendi, Joxe Begiristain, Antonio Berasategi, Bixente Trujillo, Pausogaizto M.E., Maizpideko kladiozaleak, Xabier Gonzalez, Koldo Zubeldia eta Xabier Urteaga.

Zenbait argazki: Foto Etxe, Dioni, Idoia Arteaga eta R. Iraola.

Gure eskerronak: Gure "sponsorrei": publizitatea ematen diguten guztiei. Era batera edo bestera lagun-

du nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzuenoi

Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jasotzen du



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria Tlf.

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali.
DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

NON ZER

4. orria, eskutitzak eta abar...
5. orria, agenda, non zer berri, egutegiak
6. orria, zerbitzuak
7. orria, besteek esana
8. orria, usteak uste...
9. orria, berriak labur, ekainean nabarmen
10. orria, Aizkorriko parke naturala
11. orria, iritzia: Goierri gurea
12. orria, ekainak 6-eko hauteskunde emaitzak
13. orria, Lazkaomendiko zalditegia
14. orria, Legorretako Udalar papelera
15. orria, M. Larrañaga Lazkaoko euri gizona
16. orritik 23.era, Ataun, Segura, Lazkao, Beasain, Legorreta, Ormaiztegi, Ordizia eta Idiazabalgo berri zuzen eta zabalak.
24. orria, Goierri-Cho Oyu mendizale espedizioa
25. orria, harrobitik mendia etakirola bi lerrotan
26. orria, goierritarrak munduan
27. orria, kultur ataria
28. orria, Joxe Lontxo ez baino Joxe Ramon Soroiz
31. orria, Kilometroak 93, egun handia gertuago
32. orria, Klaudio Otaegi zegamar idazlea
33. orria, "Ancha es Castilla"ren disko berria
34. orria, gure liburutegia, aholkuak...
35. orria, gastronomia

Oporraldiak ondo pasa!

Ahal duenak eta ezin duenak

Ahal izatea da ikasketak edo hezkuntza jaso ahal izatea, zeure izaera garatzeko bitartekoez disposatu ahal izatea. Eta ezina berriz, aurrera-pausoak eman ezina, ez hezkuntzarako ez eta ere gustokoa duzun gutxieneko hori egiteko, betetzeko. Bi egoera hauen artean tarteko egoerak noski. Eta behintzat elementu objetibo bat bada egoera hauek ezberdintzera eramaten gaituena: dirua!!! (Badira baita ere pertsona bakoitzak ditugun muga sikologikoak, bakoitzaren beldurrak, gutxiago garelako uste izatea,... beste elementu batzuk, alegia).

Eta kalean, klasean, lanean, ikusten dituzu bi egoera aurkako hauetan bizi diren pertsonak. Eta nere ustez bata besteari oztopo egiten dio ia beti: bakoitzak berea ikusten du, eta oso zail egiten zaio besteen egoeran erreparatzea, edo nahita ere ezin du ikusi (kontzientzia, sikologia, fanatismoa batzutan...). Ezin ulermenerako puntu amankomun batetara iritsi.

Eta azken boladan datozen haizeak: pribatizatzea, ezberdintasunak handitzea. Baina ez al zaizue burutik pasatzen txikiari laguntzea, handixeagoa izan dadin eta besteen posibilitateak izan ditzan? Behin ba omen zen artzai pobre bat, haur asko zituen, eta gizon

bat joan omen zitzaion bere mendiko txabolara eta, harrituta, galdetu: "Nola hazi dituzu, gizon, hainbeste ume?"; eta artzaiak erantzun: "Txikienari lagunduz".

Nahi duenak, edo ahal duenak, ulertu dezala nahi badu.

Goierriar gazte bat

PSE-EEK Zazpi Elkar-tea bereganatu nahiaren aurrean

Orain dela 13 urte 75 bazkideren diru aportazioari eta beste pertsona askoren lanari esker Oria-Garaia Elkar-teak bere egoitza soziala ireki zuen, Beasainen Zazpi taberna bezala ezagutua (garai bateko Ezkertokia). Garai hartan elkartzen gintuena, eta urte batzuetan elkartu gaituena, EErenganako hurbiltasuna izan da. EEren haustura eman ondoren eta PSOEk sigla hauek bereganatu ondoren ematen ez den hurbiltasuna.

Gaur egun PSEn dauden antzinako EEkideek (guztira ez dira dozena erdira ere iritsiko, 200en bat kidetatik) legerietan babestuz egoitzaren jabegoa

auzitan jartzen digute, beraiek izan nahi dutelarik jaun eta jabe. Gertaera hauen aurrean Oria-Garaia Elkar-teak, bere bazkideen gehiengoaren nahia agertuz, Ez-ohizko Batzarrean bildurik, nahi honen aurrean geure desadostasuna agertu eta bide batez, geure lokala kentze ahaleginean aurrez-aurre izango gaituztela adierazi nahi dugu.

Elkarte honen Zuzendaritza taldekook eta PSE-EEKo ordezkariak, Jose Luis Elorza eta Pablo Parra jaunak, egoera honi irtenbidea eman asmoz, maiatzaren 21ean izandako bileran, azken hauen aldetik elkarrizketaren kontrako jarrera itxi batekin aurkitu gara, Elkarte eta egoitza honen sortzaileekiko eta helburuekiko inongo begirunerik eta onarpenik gabekoa.

Guzti honengatik, Beasaingo herriaren eta Goierri osoaren aurrean, Zazpi Elkar-tea benetako eta haserako sortzaileen jabegoa izan dadin behar diren neurri guztiak hartzeko prest dagoela adierazi nahi du Oria-Garaia Elkar-tea honek.

Oria-Garaia Elkar-tea (Beasain)

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

SUKALDE ETA BAINUKO HALTZARIAK
ELEKTROTRESNAK - TV - HI FI



OYARBIDE

IGARTZA-ETXEA, 2
Tlf: 88 26 21 - 88 15 96
Fax: 88 77 85
BEASAIN

OLABERRIA MERKATAL Z.
Tlf: 16 16 00
Fax: 16 16 02
OLABERRIA

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



Lana

☐Fotokonposaketa lanak egiten ditugu GOIERRITARRAn, kartelak, inprimakiak (buzoneatzeko, diptikoak, triptikoak...) eta horrelako mota guztietarako lanak. "ANtza" Inprimategiarekin batera (maisuen eskutik) zure inprenta-lanak egingo ditugu. Dei 889612 telefonora edo inguratu lasai Ordiziako gure egoitzara.

☐Neska euskaldu bat edozein lanetan arituko litzateke udan, arratsalde. Dei arratsalde, Beasaingo 886645ra (Amaia).

☐Sukaldaritzan 3 urteko esperientzia dut, umezaintza eta garbiketetan ere bai. Dei 881959ra 10etatik 11etara eta 15etatik 16etara (Rocio).

Salerosketak

☐"Adria" karabana, 4-5 lagunentzako modukoa eta berria bezala salgai. 801620ra dei.

☐Garajea salgai Zaldibin, Arrese taberna aldamenean, aukera: 884793.

☐Suzuki Lido-100 motorra salgai, km. gutxi, kasko eta seguruak opari. 886359ra dei.

☐Renault Express-en parrila salgai, ezin berriagoa. 18.000 pza. Interesatuek dei 806176ra.

☐Pub-Kafetegia salgai Urretxun, hiri-gunean, dekorazioa eta insonorizazioa, bezero finkoak, sarrera frogagarriak. Pertsonalki: 815733.

Etxebizitzak

☐Pisua salgai Ordizian, 7 milioitan. 884376 tfnoa.

☐Etxebizitza salgai Legorretan, egoera onean eta baju komertzialarekin. Tfnoa: 806363.

Opariak:

☐Oparitzen ditut: Katakume siames arrazakoa eta urtebeteko ardi-zakur bat. 725131ra.

☐Katu nabar eta pinttoak oparitzen ditugu: 883380.

Harremanak:

☐29 urteko mutil goierritar batek naturismo gaiak gustoko dituen neska bat ezagutu nahi luke. Idatzi Centre Mail Boxes, Miracruz 15, 163 buzoia, 20001 Donostiara.

IZTUETA IDAZLAN SARIKETA

"Iztueta" Fundazioak lehenbiziko aldiz antolatutako idazlan sariak burutu behar da Zaldibian, gaztetxo eta helduen mailan. Idalanen gaia "Juan Inazio Iztueta eta dantza taldeak" izango da. Lehiaketa, herrikoentzat nahiz goierritar edonorentzat zabalik egongo da. Euskarazko lanak baizik ez dira onartuko: 15 urte arteko gaztetxoek 15 orrialdekoak izan beharko dute eta gainontzekoenak 50 orrialdekoak. Idazlanak aurkezteko epea uztailearen 31an amaituko da eta sari banaketa, berriz, Santa Fe Jaietan burutuko da. Gaztetxoek mailako 1. saria 100.000 pezetakoa izango da; 2.a 75.000koa eta 3.a 50.000koa. Gazte edota helduen mailako 1.a 200.000koa, 2.a 100.000koa eta 3.a 75.000koa. Lanak ondorengo helbidera bidali: Iztueta Fundazioa, Kultur etxea, Herriko Enparantza, 20247 Zaldibia. Informazio gehiago: Kultur Etxea, 888090.

LAZKAOKO UDAKO XIX EUSKAL IKASTAROA

☐Uztailearen 7tik abuztuaren 19rarte, ekitaldiak.

☐Uztailak 8, osteguna: Goierriko Bertsolariak Areria Zineman, arratseko 9,30etan.

☐14, asteazkena: Antzerkia: Biñkate, Taun-taun kolektiboa, Arerian, arratseko 9etan.

☐15, osteguna: Soinu kontzertua: Enrike Zelaia, Arerian, arratseko 9,30etan.

☐20, asteartea: Anje Duhalde eta Xabier Amuriza-Jon Sarasuaren Bertso-kantaldia, Arerian, arratseko 9,30etan.

☐21, asteazkena: Koldo Ameztoy ipui-kontalaria, Lau haizeetara, Arerian, arratseko 9,30etan.

☐22, osteguna: Imuntzo eta Beloki trikitilariak, Maizpide Euskaltegian arratseko 8etatik 10etara.

☐Abuztuak 12, osteguna: Koldo Ameztoy ipui-kontalaria, Lau haizeetara, Maizpideko Zineman, arratseko 9etan.

☐18, asteazkena: Anje Duhalde eta Xabier Amurizaren kantaldia, Maizpiden, arratseko 9,30etan.

☐19, osteguna: Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilariak, Maizpiden hasi arratseko 8etan, Gerriko Tabernan amaitzeko.

EGUTEGIAK

Ordiziako Kilometroak-93en egitaraua: **Uztailak 10-11:** Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa, antolatzaile: Ordizia K.E.; **11:** Kilometroak-93 Mountain Bike Saria, 10etan, Gudarien Etorbidean; **15etik 20ra:** "Boulder" erako eskalada, Pausogaizto G.M.-en eskutik; **16:** Goiz-pasa haurrentzat, 11etan, Barrenako parkean, antolatzaile: Balakataklin; kale animazioa "Goloka" taldearekin, 17,00etan, Enparantza Nagusian; **26:** Profesionalen arteko eskuzko pilota partiduak, 18,00etan, Pilotalekuan, antolatzaile Jai Alai Pilota Elkarte.

Ordiziako Herri Antzokia: **Uztailak 9:** El cuerpo del delito; **10:** Seducción peligrosa; **11-12:** El cuerpo del delito; **16:** Pasajero 57; **17:** Sotano del miedo; **18:** El pequeño Tate - Pasajero 57; **19:** Pasajero 57; **23-25-26:** Un día de furia.

Ordiziako Mendizaleak: **Irailak 12:** Lizarrausti-Igaratza-Intza; **19:** Kruzeta-Orixol-Tellamendi-Besaide; **26:** Lezo-Jaizkibel-Hondarribia.

Beasaingo Aitzgorri M.E.: **Uztailak 11:** Aketegi; **18:** Midi d'Ossau; **25:** Gorbea; **31:** Txindoki; **Abuztuak** Akanpada Nazionala; **Irailak 5:** Beasain-mendiko jaiak; **12:** Irantzu-Urba; **19:** Besaide; **26:** Pirinotako Akanpada.

Ordizia/Beasaingo Goardiako farmaziak: **Uztailak 6:** Cuesta; **7:** Arriola; **8:** Urbizu; **9:** Atorrasagasti; **10-11-12:** Azpilikueta; **13:** Jauregi; **14:** Lournaga; **15:** Cuesta; **16:** Arriola; **17-18:** Lournaga; **19:** Urbizu; **20:** Atorrasagasti; **21:** Azpilikueta; **22:** Jauregi; **23:** Lournaga; **24-25-26:** Cuesta; **27:** Arriola; **28:** Urbizu; **29:** Atorrasagasti; **30:** Azpilikueta; **31:** Arriola.

SASIETA MANKOMUNITATEAREN GARBITASUN

Gida liburua

Zerbitzuen Gida-Liburuxka honen bidez, argi eta garbi eta teknizismoak alde batera utziz, Mankomunitate honek herritarren esku jartzen dituen zerbitzuen berri eman eta berauek ahalik eta hoberen aprobetxatzeko zenbait gomendio eskeini nahi izan du. Guztira 25.000 ale argitaratu dira eta buzoiketa bidez eskualdeko etxe guztietara iristea espero dute.

Goierrri bizigune hobeagoa bihurtu nahian elkarlanean ari garenoi zuzendu zaigu Sasieta Mankomunitateko Lehendakari den Josune Agirre: "Goierrri gure 'etxea' dela esatea ez da inolaz ere gehiegikeria. Bistakoa baita, guk denok, inguru garbiago eta atsegino batean bizi nahi dugula. Mankomunitateari dagokio nahi hau gauzatzea eta lan horretan ez gara ez, txikikeriatan arituko", dio Gidaren



aurkezpenean. 93.az geroztik, Goierrriko Zabor-Bilketa Zerbitzua Sasietaren ardurapean dago. Honako oinarritzko zerbitzuok eskaintzen zaizkigu: etxeetako, azoketako eta kaleetako zaborren bilketa, traste zaharre eta hildako animalien bilketa eta edukinontzien garbiketa eta mantenimendua.

Mankomunitatearen helburua,

FCC,SA-ren bidez, eskualdeari ekipamendu eta zerbitzu eraginkorrak eskeintzea da, beti ere hiritarrei ahalik eta eragozpen gutxien sortuz. Baina horretarako guztion laguntza ezinbestekoa da, zabor-bilketa zerbitzua ona izan arren, gure jarrerak elkartasunezkoa izan behar baitu, hobetuko badugu guztiok ordaintzen dugun zerbitzua. Gida-liburuaren helburua, bilketa-zerbitzua egunero eta pixkanaka hobetzen joatea da. Liburuxka paper ekologikoarekin egin dago eta diseinuari ere arreta handia eskeini nahi izan diote, Iñaki Erauskin Mankomunitateko Zerbitzuburuak dioskunez, etxean gorde eta noiznahi kontsultatzeko moduko gida bihur dadin.

Gidaren izenburuak dioena: Garbitasuna guztion esku dago.



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA

GARAJE "LAZKAO"



**Renault
ZERBITZU OFIZIALA**

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokpiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA



IRYROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

Besteek esana

Tontoa errege

(...) HAUTESKUNDEAK datoze-nean, mundu guztia *indezisoen* (politikoei deitzeko asmatutako ize-na) atzetik dabil. Batzutan botoaren truke, lanposturen bat lor dezakete edo eskupeko politik. Dituzten lagun berriez harriturik eta kokotea *soba soba* eginda ibiliko dira bolada horretan. Listoek aldiz, begirada txarrak jasan beharko dituzte, aukera egina bait dute.

Telebista kateek berentzat pare pareko programak egingo dituzte, bestee-kin pentsatu gabe, izan ere *tontoak* bait dira gehiengoa. Publizitate iragarkiek gauza bera. Kirol taldeek fitxaketa izugarriak egin, ahalik eta *tonto* gehien atzetik izango badituzte. Bertsolariek ere pertsonairik ezagunenak eta ximpleenak aukeratuko dituzte bertsoari 'indarra' emateko eta aldi berean, publiko *tontoak* erraz uler dezan, horri esker lortutako txaloen animoz, beste okurrentziaren bat bota ahal izateko fansei.

Era honetan, *tontoak* multzoka bilduko dira ekintza jakin batzuen inguruan, gainera ondo pasatuko dute, merke, aukeratzen burua nekatu gabe. Listo ustekoak bitartean, *tontoen* ongi-

zate horren bila atsedenik gabe, leher eginda, estressaren pean, ariko dira, zerbait izatera iritsi nahian. Nor da tontoa?

Iñaki Murua, "Argia", 93-VI-6



Ikastola eta informazioa


(...)BEASAINGO Alkartasuna Lizeoko informazioa (desinformazioa) datorkit. Joan den ostegunean, Batzarre Nagusia Lizeoa publikotzearen alde atera omen zen: 700 botu inguru guztira, eta 100 inguru gehiago publikotzearen alde. Bai kalean, bai egunkarietan, Batzarre Nagusiak Lizeoa publikotzea erabaki duela diote (batzuek nahigabe handiz, beste batzuek pozik). Neri, ordea, duda eta galdera datozkit: hain gauza garbia ote Batzarre Nagusiak Lizeoa publikotzea erabaki duela? (...)Gauza bat da erdiak baino gehixeagok publikotzearen aldeko botua ematea, eta beste bat lortutako botu-kopuru hori aski ote den kaleratu dena bezalako erabakia hartzeko. Hain zuzen, Lizeoa publikotzeak Kooperatiba de-

segitea lekarke; zein zentzu luke dena Hezkuntzari entregatu eta kooperatiba mantentzeak?; izaerarik gabeko mamua litzateke (ebaki hegoak, kendu burua, kendu hankak: zer da txoriaz?). Baina, hona, nik dakidala, Kooperatiba desegiteko, botuen erdia baino gehixeago ez, baizik 3tatik 2 behar dira. (...)Badakit nahasmendu hau garbitzeko, ni baino legelari trebeagorik beharko dela. Gutxienez, ordea, horrelako auzi handi baten inguruan informazio garbiagoa espero izatekoa dela uste dut. Dudamudak ez baitira nireak bakarrik Goierri inguru honetan. Baina, Alkartasuna Lizeoaren inguruan bada besterik ere. Inguruetako herrietako jendeak ez ote luke ezer esatekorik Kooperatiba desegite/ez desegite horri buruz? Beasaingo Lizeoa eta Ordiziako Ikastola sortzean ez ote zuren parterik hartu inguruko herriek? (...) Instituzioen alde bagaude, gauden benetan benetako eta egiazko Instituzioen alde. Eta Kooperatiba instituzioa da. Eta Kooperatibaren Estatutuak eta izaera defenditzea, instituzioa defenditzea da.

Dionisio Amundarain, "Egunkaria", 93-V-26.

TAPIZ ETA GAINETZADURA
TAILERRA

BIOK, C.B.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnok: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia
- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etkezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 - ORDIZIA



Kolorezko argazkien errebelatua ordu betean
Tlf.: 88 04 78 Faxa: 88 04 78
Nafarroa Etorbidea 1. BEASAIN

Red, red wine

B atere bila ibili gabe, aste honetan eta trumilka etorri zaizkit, bata bestearen arrimoan, artikulua hau tajutzeko hiru berri. 1.a telebis-tatik. Chabela Vargas-i elkarrizketa bat egiten ari zitzaizkion, eta kantari me-xikarra, ezpainetan irribarrea eta bihotzean mina, urte luzeetan eraman izan zuen alkoholaren menpeko bere bizimodua azaltzen ari zen. *"Hamaika tona ardo eta tekila edanda nago ni nere denboran"* bota zuen Chabelak, eta elkarrizketatzaile baldarrak, kan-tariaren hitz-zipristinek liluraturik eta haren bihotzean letzen asmatu gabe, barre ergelari ekin zion. *"Batek daki zenbat kantina hustuta egongo naizen ni"* jarraitu zuen mexikarrak, eta elka-rrizketatzailea, umorezko hitzen ba-rreneko mingostasuna ulertu barik, al-gara batean lehertu zen. Ez naiz ni el-karrizketatzaile horren dorpetasuna epaitzen hasiko; agian, bere erru baka-rra mimetismoan erortzea besterik ez baitzen, hots, gizarteak alkoholismoa-ren aurrean egin ohi duena, imitatzea besterik ez baitzuen egin: behar bezala planteatzen ez den alkoholismoaren arazoari erantzun iheskorrak (barre inozoak, esaterako) eman.

Bego estranjerian tekila eta betor ("ez baletor hobe!") gure kanta baten letra oroituz) hemengo mama gozoa-rekiko 2. adibidea. Lagun batek utzi-tako diskari esker jaso dut: "red, red wine, ardo gorri naparra nahi nuke orain edan, oraintxe bertan, mozkortu arte". Neil Diamond-en musika gozoa-ri letra mikatza jarri dio Xabier Saldia-sek. Lehen aipatzen nuen mimetismo berberan erori dira hor "Egan" talde-koak. Bestela, nola arraiotan uler dai-teke gazteei (gazte jendea mugitzen baitu Egan-ek batipat) mozkortzeko gonbitea egitea?

Gure kantariena nahikoa ez dela, etxekoak ere hasi zaizkit ardoaren lau-doriotan. Etxekotzat baiditut "Ai gea-la" taldekoak, partaide naute-eta eus-karari bizi-arnasa berri bat emateko. Euskarari lehenengo bultzada nola emango, eta ez al zaie "Euskal txiki-teoa" antolatzea bururatu Beasaingo festetan? Euskaraz aritu eta euskara zuzpertarazteko asmoz gustora joango natzaie etxekoei, ez ordea baxoerdiak hartzen ibiltzeko. Batetik, ez dut ba-rrundatzen baxoerditan sarri dabilta-nek beren euskara hobetzen dutenik, eta, bestetik, edozein kultur elkartek (Ai gealak barne) ardoaren kontsumoa bultzatzea ez baina bestelako ekintzak antolatu behar dituela uste dut. Guztiz konbentziturik nago euskararekin ibil-tzeko ez dagoela ardoaren eskutik ibili beharrik.

Hobe beharrez jokatu du horrela Ai geala-k eta era beretsuan, intentzio makurrik gabe egingo zuten Egan-ekoek ardoaren aldeko apologia. Asmo eta federik onenak eraginda ere, biek ala biek hankasartze ttiki bana egin du-te eta, nire ustez, okerrak zuzentzea zentzudunena denez, ez lukete horre-lakorik errepikatu beharko. Ziur nago txikiteo horretan ez zela inor mozkortu, eta helburua inor mozkortzea ere ez zela, baina, guzti horrek ez du ekintza justifikatzen. Horrelako ekintzak an-tolatuz, bestelako asmoak edukita ere, alkoholismoaren hondartzari hondar ale berriak botatzen ari gataizkio. Kontuan izan alkoholismoari buruzko estatistikak nornahiri hezurretarainoko beldurra sartzeko modukoak direla. Juzga beza zuhurra denak ea ez ote di-ren beldurtzeko modukoak Osakide-tzak, oraindik oraintsu, Euskal Auto-nomia Elkarteko alkoholaren kontsu-moari buruz eskaini dituen inkesta ba-

ten datuok: 230.000 pertsonak, norma-lean, alkohol gehiegi edaten dute; egun, 13-14 urterekin hasten dira gaz-teak alkohola kontsumitzen; gazteen %44ak 16 urte bete baino lehen noiz-bait mozkortu dela aitortzen du.

Joan den astean, Euskal Gobernu-ko drogomenpekotasunetarako idazka-riak, alkoholismoaren auziari aurpegia eman behar zaiola eta, gurasoek beren seme-alabekin "esku gogorra" erabil-tzea aholkatu zuen. Zigorrak, debe-kuak... horixe zen. bere proposamena. Egia esan, idazkariaren proposamenak ez nau gehiegi betetzen. Seme-alabei ezer debekatzen hasi aurretik, guraso gehienek alkohola kontsumitzeko be-ren ohitura aldatu beharko luketela-koan bainago. Hainbat gurasok beren ohiturak aldatu, eta hainbat gaztek be-ren dibertsio-moduak ere birplanteatu beharko lituzkete. Izan ere, dibertsioa eta txurruta elkarren osagarritzat har-tzen segitzen dugun bitartean, progre-soaren aurpegi beltzari laztanak egiten baikabiltza. Nolanahi dela ere, artikulua xume honen helburua ez da izan al-koholaren kontsumoa frenatzeko ba-liabide-zerrenda bat eskaintzea. Bai baitakit makina bat jende izango dela ni baino adituagorik horrelako zerrendak emateko. Erreflexiorako gonbitea besterik ez da izan nire hau. Zinez pen-tsatzan baitut bere burua progresista-tzat hartzen duenak, lehen azal dutako zifra lazgarriak buruan presente izan eta sekula ez liokeela alkoholaren kon-tsumoari bultz egin beharko.

Ez luke, kasurako, poteo herrikoirik (ulertuko ote du euskaldun petoa denak "poteo herrikoia"ren euskal esanahia?) antolatu beharko.

 Xabier Gartzia



Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO

ERLOJUTEGIA BITXITEGIA
GARMENDIA

Nagusia, 20 tel. 88 15 32 BEASAIN

Ba al dakizu...?

□Jokin Garmendia olaberriar intsumi-soa 4 hilabete eta egun bateko gartzela zigorrera kondenatu zuen Segobiako Epaitegi batek. 88ean izan zen kontzientzia-eragozle bezala ezagutua Jokin eta ordezkio zerbitzu soziala egiteko gaitzat jo zuten. Berak ez du hori bete eta hortik zetorkion gartzelaren itzala. Antezedenterik ez duenez, libratu egiten da guztiz gartzelatik. Gaiarekin lotuta, esan Beasainen eginiko manifestazio baten bidez, elkartasuna adierazi zitzaizela diren intsumiso guztiei.



□Joandako otsaila bukaera eta martxo hasierako elurteek kalte ugari eragin zituzten Goierriin: Ormaiztegiko Balda baserrian negutegi tunel bat hondoratua (milioi erdi); Aramako Agerre baserrian 3 tunel (ia milioi t'erdia); Ormaiztegiko Sagastiberrin bi negutegi-tunel; Ataungo Lauztiazpin sagardotarako sagarrondoak erori ziren; Seguran ere bazen baserriaren bat sagarrondoak galdu zituen, e.a. 89ko suteen eta 90 harriteen ondoren, elurteak ere bere kalteak eragin ditu, gehienbat Insignis-pinudietan. Horrez gain materialerako egurrak ere jeitsiera latza izan du eta basozaleek ez dute ilusio

handirik.

□Azken urteotan artzaiek arazo latzak izan dituzte artilea saltzeko. Prezioak oso baxuak ziren: kiloko 2 eta 5 pezeta. Saldu ezinean, arditegi ondoetan pilatu dituzte. Arazoari aurre egiteko Sasieta Mankomunitateak artile-bilketaren zerbitzua eskeini du, dohainik. Artilea kendu nahi duen artzainak, dei beza 161590ra (FCC-SA).

□Arriarango presa bukatzeaz dago. Europar kalitateko eta edateko moduko uraz asetuko gaitu 35.000 goierriar. Urtegitiko ur-ekarrerak prolema sortu ditu Beasaingo Loinatz-Gudugarretan. Azaro inguruan hasi ziren obrak inguru horretan, tuberiak sartu belardi-azpian, e.a. Diputazio-tik, baserriarrei agindu omen zitzaizkien lehen bezala geldituko zirela gauzak: 8 hilabete pasa eta arazoak hor dirau. Nahiz eta pista hobetu, hobetu den, belardiak gauza ez dira laborerako.

□Datorren urtean hasiko ote diren Beasaingo Ezkiaga auzoko etxe berrien eraikuntza lanak. Egitasmoa nahikoa aurrera dihoa, Eusko Jaurlaritzarekiko komenioa zinatzea falta da. Bi urtetan bukatuko lirateke lanok eta 11 milioietako etxeak jarri aukeran.

□Datorren ikasturtean, beharrak eraginda, bat egingo dute herri bereko San Martin eta San Jose ikastetxeek. Proiektua aspalditik zetorren abiatzen, baina zenbait arazoez, titularitatea barne, atzeratu zuten gertakaria. Zentru berriak La Salle-San Jose izena eramango dut eta ikasleen gurasoak kooperatibako bazkide izango dira.

□Udalaren babesa behar du Beasaingo Seaska Haurreskolak. Sare Publikoan

aukera izateko Udalaren titularitatea behar du. Hori bera eskatu eta Haurreskolaren azken 18 urtetako lana eta esperientzia kontutan har zedin, kontzentrazio bat burutu zuten guraso eta haurreskolako irakasleek. "Herriko elkartasuna badugu, orain istitutazio publikoena behar dugu, gutxienez, aurre-erapauso bat egiteko", adierazi dute.

□CAF enpresak 5.000 milioi eta gehiago inbertituko omen ditu 1999 urte bukaera bitartean. 250 lanpostu berri sortzea aurreikusten da, Eusko Jaurlaritzarengandik 1.713 milioiko laguntzarekin eta Diputazioak eskeinitako ordainketa moratoriekin batera. Gaur gaurkoz, 80.000 milioiko eskaera kartera bat du Fabrika Haundiak, 92eko irabazietako 1.561 milioi erre-serbara paseak ditu eta 718 milioi irabazi ditu aurtengo lehen lauhilabetealdian. Egindako aurreikuspenak gaindizten omen dira.

□Ordiziako Jakintza Ikastolako zuzendaritza bezala, Tolosako Laskorain Ikastolako zuzendari den Joxe Martin Aizpuru itsasondarra ere Eskola publikoaren aurka azaldu da "Galtzaundi" aldizkarian, "erdibideko bat aterako zela espero zen 88.ean, baina honek ez ditu asebetetzen ikastolak". Bilatzen dizkion oztupo nagusienak euskal ereduaren arazoa, autonomi eskasa, langilego eta gurasoen partaidetza testiniala dira, "oraingo eruditik oso urrutituta daudelako". Laskorainek 1.600 ikasle inguru ditu egun eta 100 langile eskas. Azken bi urteotan diru iturriak agortzen joan dira Delegazioetik eta orain ajuste batzuk egin beharko dituzte zerbitzu eta langilegoan, kuota piska bat igotzera behartuta daude. Sare publikoan sartuz, zerbitzu horiek ordaindu beharko lirateke, baina ez hainbeste.



JATETXEA
Juan Rubio

HIPER OLABERRIA

Eguerditan:
Self-service 750 pzta.
Eguneko menua 1.500 pzta.
Degustazio menua 2.500 pzta.
Larunbatetan enkarguz 40tik
300erako taldeei ematen zaie

Tlfonoa: 16 02 15

ITAKA PUB

Arratsaldeko 6etatik goizalderarte

Zaldizurreta, 3. 16 03 40 Tlf.
BEASAIN

PARTZONERIAREN GEROA ERE MAHAI INGURUAN

Aizkorriko Parke Naturala


Luze (baina bizi, hala ere) joan zen Idiazabalgo Kultur Asteko ekitaldien barruan Aizkorriko Parke Naturalaz izandako mahai ingurua. Mugatu, eratu eta onartu gabe dago oraindik parke hori, baina, aretora joandakoen kopurua ikusiz, ez da dudarik interes handia dela herritarren artean.

Solasaldiari hasiera emateko, Asun Urzainki EUTGko irakasleak hitz egin zuen. Baikor azaldu zen Partzoneriako mendien etorkizunaz. Partzoneriak 500 eta gehiago urtetan iraun izanak eta gaurko egunean ere bizitasuna erakustek, suertatu diren gorabehera guztiak gaingintzen jakin duela frogatzen du. Bitarte horretan aldaketa ugari izan da eta artzantza eta basogintza interesen borrokek behin baino gehiagotan larritasuna ekarri izan badute ere, beti lortu da nolabaiteko oreka berria, aldiari aldiko egoerari moldatuz. Beraren ustez, Partzoneria ez da "inguru natural" hutsa izan; orekari eustea lortu badu, herrietako bizilagunen ihardunean ederki sustraitu delako izan da eta horrek berebiziko histori eta kultur balioa du. Gordetzea, beraz, hortik etorri den antolakuntza historikoa.

Ondoren, Roberto Gonzalez Partzoneriaren esanera ari den teknikoari, parke natural izateak, Partzoneriaren ohizko ekonomi errekurtsotatik aldaketarik ekarriko ote duen galdetu zitzaion. Esan zuen, Partzoneria inbertsio handiak egiten ari dela orain bertan ere, artzainen bizimodua erosoago egiteko eta basoen balioa handitzeko. Aurrerantzean, parke natural bihurtuz gero, gauzak ez omen dira izugarri aldatuko. Beraren hitzetan, urbanismo eta ekonomi mailan eta ehiz kontuetan jarriko liratekeen arauak ez dute orain artekoak baino askoz gogoragoak zertan izan beharrik.

Iñaki Aizpuru Diputazioko teknikoaren txandan, lurralde antolaketaren eremu zabala aztertu zen. Aizkorriko parke naturala, Gasteizko parlamentuak erabakitako planean dago, beste

zenbait legez. Horrelakoen helburua, ondo samar kontserbatuta dauden eremuak babestea omen da; ez daitezela hondatu edozein gizarte sektoreen gehiegizko presioz. Parke natural bat eratzean ez da, horraatik, giza aztarna oro ezabatu eta egoera naturalera bueltatu nahi. Horregatik, parkearen eremuan aritu ohi diren sektoreen interesari eta kezkei begiratu gabe ezin da ezer egin. Zerbait egitekotan guztien akordioa lortzea ia nahitaezkoa da. Egia da, ihardunak (artzantza, basogintza, ehiza, ibiltaritza...) ordenatu eta leku jakin batzuetara mugatu egingo direla eta dena ez dela libre izango, baina helbu-



ria konponbidera iristea da.

Iñaki Irizar mintzatu zen azkenik, Mendi Federazioaren izenean. Jende asko mendira, kaleko girotik ihesi joaten dela esan zuen. Horregatik, han ez dauzkan gauzak aurkitu nahi lituzke; ez ditu atsegin errentagarritasun hutsari begira jarrita dauden pinudi zabaldugiak, ez du gogokoa ehiza, dagoen fauna apurra galerazten duelako... Erakundeek babes lana hasierakoetan baino ez dagoela adierazi zuen eta ezin dela oraindik inguruneon gestioaz irizpen orokorrik eman. Nolanahi, orain arte dagoen egoera ordenatzera mugatzea ez bide da nahikoa; Aralarko parkeko prestatu diren arauak biguin samar iritzi zien, esate baterako.

Eztabaidari ekin zitzaion sarrerako saioen ondoren. Guztiak bat etorri zi-

ren Partzoneriako gaur egungo oreka galtzeko arriskua zehazteko garaian: gehiegizko kontsumo jokabideak eta jende gehiegia. Gure gizartearen eskeak ikaragarri ugaltzen dira, nola produktuetan (egurra...), hala ingurune naturalan eta Urbiako "turismo"aren aurrean, zerbait egin beharko da.

Saltsa gehixeago izan zen ordea, beste puntu batzuen inguruan. Parkearen mugak nondik nora jarri beharko liratekeen ikusteko garaian, adib., Urzainkik Partzoneriaren berak gordetzea proposatu zuen, horrela beraren histori eta kultur nortasuna gordetzeko modua ere jarriko delakoan; nahiz eta kostuetan Diputazioak eta Gobernuak ere lagundu beharko luketen (leku askotako jendea etortzen da), gauzak erabakitzeke. Aizpuru, aldiz, zabalago jokatzearen alde agertu zen. Partzoneriaren ondoan, beraren antzeko ezaugarri naturalak dituzten beste lur batzuk ere badirenez, denak sartu behar parke naturalean; gero, Patronatu berezi batek zuzendu beharko luke, nahiz eta horrek ez ukatu Partzoneriaren iraupena; bere lurren jabetzari eta gestioari eutsi egingo lieke.

Beste desadostasun bat, ehizaren inguruan sortu zen. Jendeartean eseritako zenbait ehiztarik, auzitan jarri zuen parke naturalik behar den, beren ustez Partzoneria orain arte bezala ondo dagoelako; beldur dira ehiza debekatu edo, behintzat, mugatuko den. Iñaki Aizpuru Diputazioko teknikoak erantzun zien, Parke Naturalak ez duela horrelako zerbait zertan ekarri beharrik; ehiz arau orokorrek daude eta horiek dira lege leku guztietan. Gehienez ere, Parkeko beste gauza guztiak bezala, ehiza ordenatu eta leku jakin batzuetan egitera joko da.

Jendeak azaldutako beste zenbait galdera, kezka eta iritzi eztabaidatuz bukatu zen saioa.

 **Idiazabal K.E.-ko Mendi Saila**

Goierri gurea

Idatzi hau bukatu ondoren ez nuela argitaratu behar pentsatu nuen, gehienbat umekeria izan zitekeela-koan, "*Las Fiestas Patronales tienen su origen en las Ferias de Loinaz hace unos 500 años*" (*Eran las mas importantes de Guipuzcoa*), DV Beasain izenean sinatutako artikuluari erantzutea edo horretaz baliatzea; "DV-k" Maiatzaren 21ean Beasaingo jaietako gehigarrian argitaratua. Aipatu beharra dago, Alkateak egindako agurra ezik, gainerako guztia gaztelan idatzita zegoela (8 orrialde).

Umekeria dela esan dut, aipaturiko artikulua, bera ere, horrela baita. Adibide gisa, egunkarian bertan agertutako parrafo bat idatziko dut hemen, duela 500 urte Loinazko azokari ematen zitzaien nazio arteko kutsua egiaztatzen duena, alegia, honela dio: "*El caracter de internacional se le puede añadir, ya que en diversos testamentos otorgados en aquella epoca se daban cita frases como estas: 'Dejo tantas varas de tela verde de Cuenca; 'Tantos rebocos de Holanda, de Damasco blanco, tantas Etasquiñas'*".

Artikulua umekeria dela deritzot, baina DV Beasain izenean sinatuta dagoenez (bestela ez nioke garrantzirik emango) eta gai honetaz zenbait jendekin hitzegi ondoren eta iritzi bera dutela ikusita, idatzi hau ateratzea erabaki dut, "giroan usaintzen den" proselitismo kanpaina baten barruan dagoela uste baitut goian aipaturiko artikulua. Beasain, Goierriko ustezko hiriburutzat aurkeztu nahian edo.

Izan ere, inork ez du ukatuko Beasain dela biztanlerik gehien duen eskualdeko herria, baina ez dugu onartzen zenbait gauza edo baieztapen edota eginkizun, esate baterako, N-1-eko tunela Beasaingo tunela izatea, beti izan baita, da eta izango da Ordiziako tunela, haren lurraldean dagoen zatia kentzen badute behintzat, eta DVko beste artikulua batzuetan ere, Beasaingo lurretako mm. bat ere ikusten ez den argazki eta guzti azaltzen dira (Ordiziarena da den-dena) eta argaz-

kionean irakurtzen da *Beasaingo Tunela*, eta ez da behin ere aipatzen, ez argazkian ezta argazkioinean ere, Ordizia. Ez zaigu axola, goierritar guztiok badakigu eta, hala ere esan beharra dagoela uste dut, eta inor animatzen ez denez, nik neuk egiten dut.

Artikuluaren ildoari jarraituz esango nuke, baita ordiziarrok ere herriko historia aztertu duten idazle ospetsuekiko herrimina dugula, hala nola, "*Mendigar*", "*Kifi*", *Domingo Jauregi*, *Manuel Egoskozabal*, *Francisco Iturrioz*, *Francisco Legorburu*, *Victor Mendizabal*, *Luis Arcelus*, *Agapito Yurrita*, *Juan Miguel Larnaga*, *Domingo Goitia*,..., eta hain bertakoak diren eta ez diren beste batzuk ere (*Carmelo Echegaray*, *Serafio Mujika*, *Jose Maria Donosti*, *Jose Arteche*,...) historian tradizio haundia izan duten gertakariak, ohiturak eta tokiak aztertu dituztenak eta oso ezagunak Gipuzkoako Goierriin.

Badirudi, historia ikasi berria duen baten batek idatzi duela (delako artikulua), eta saiatzen dela imitatzen, hala ere (zartarkieriaz), parrafo honetan aipatu ditudan idazle ospetsuak. Kifik (Fermin Gonzalez Jaunak) urteetan zehar, nahiz Ordizia eta Goierriko herri kronikan, nahiz hainbat eta hainbat argitalditan egindako lanari, esker ona emanez, oroigarri-omenaldi gisa izan dadila, xumea izan arren, artikulua hau. Parafernalia guzti honek ekartzen dit burura, Tolosa-Donostiako ihauteiekin gertatzen ari dena. Zeintzu dira gelditzen direnak? Berezko zerbait dutenak eta ospatuak izan direnak historian zehar, eta ez antzeko zerbait egin nahi dutenak. Eta berehala ere sartu nahi izango digute ziria, N-1a Bilbotik gertu edo ingurutik pasako dela esanez. Garaiaren garai!

Ez ote da izango funtzionariak firrifarra sortu nahi dituztela Beasainen (adib.: Anbulatorioa, IRPF, Eskualdeko Suhiltzaileen Egoitza bertan eraikitzeko ahaleginak, e.a.)? Aski ezaguna den ondoko argumentu teorikoaz: "Ahalik eta zabalena izango den azpiegitura bar sortu

zure azpian, txarra edo emangaitza izan arren, (funtzionari batzu?), nork berea defendatzeagatik, zeureari eutsiko dio eta. Dena den, funtzionaritzari buruzko atal honek beste artikulua bat egitea eskatzen du.

Berezkoa duenak, bere kabuz bizitza duenak, irauten du. Benetako Beasaini diodan maitasunetik esaten dut guzti hau. Lagun asko ditut herri horretan, 8 urtez han bizi nintzen eta han bertan jaio eta hazi zen semerik zaharrena. Ordiziak mendeetan zehar izan du hiri baten maila eta arima, eta tradizioz eta historiaz eskualdeko hiriburua edota herri garrantzitsua izan da, eta hori ez da bi egun barru lortzen, ez da hiritarra behartu edo eraso behar ziria sartuz, argi ez diren interesen alde (Nahikoa dugu funtzionaritzaren kontrolarekin! Funtzionarien soldata, kaleko herritarrok ordaintzen dugu, hots, guk geuk!). Argi eta garbi azal diezaiotela herriari Euskal Herriko politikoei "*Directrices de Ordenacion Territorial*" izeneko estudioa, oraindik oso ezaguna ez dena, eta zabal mintzatu eta eztabaidatu horretarako dauden erakundeetan, behar adinako denborarekin, asmo hori errealtate bihurtu baino lehen, dirudienez, beste askotan bezala, ixileko atetik.

Goierriko eskualdea ederra da bere herri eta auzo guztiekin, Ordizia, Lazkao, Zaldibia, Arama, Segura, Beasain eta gainerako guztiak. Egin dezagun lan bere garapenerako! Egin dezagun lan ixila. Hor daude Goierriko Kooperatibak, *GOILAN* taldearen barruan (*AMPO*, *KENDU*, *ORKLI*, *IRIZAR*,...), *INDAR*, *JASO*, *BILORE*, *BARRENA*, *OIAN-GU*, *LAZKAOMENDI*, *GOIHERRIKO HERRIEN EKINTZA*, *LAREO*, *ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEA*, eta goierritarrek lortutako beste asko eta asko, eta gainera proselitismoa goraiatu gabe auskalo zein auzi ilun baten alde. Aurrera, Gora Beasain, gora Ordizia, gora Goierri!

 Bixente Trujillo

URBITARTE SAGARDOTEGIA

*Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik asteburuetan, betiko sukaldaritzarekin

*Enkarguak: 88 83 31

*ERGOIENA AUZOA Tlf: 88 27 19
ATAUN



Ekainak 6-eko hauteskundeak emaitzak Goierrin

Udalerria	Zentsoa	Abst.	PSE-EE	EAJ	EA-EUE	HB	PP	Besterik
ALTZAGA	83	%32	0	8	13	33	1	2
ARAMA	117	%24	2	19	19	44	1	4
ATAUN	1.444	%25	18	195	371	460	3	35
BEASAIN	9.866	%31	1.656	1.464	1.283	1.322	492	622
EZKIO-ITSASO	441	%26	6	45	116	153	4	2
GABIRIA	360	%30	2	21	175	43	7	5
GAINTZA	107	%38	0	13	17	31	0	5
IDIAZABAL	1.586	%26	47	279	495	268	46	38
ITSASONDO	540	%32	17	93	63	150	9	36
LAZKAO	3.926	%28	629	628	419	797	119	232
LEGORRETA	1.193	%26	137	299	156	199	47	50
MUTILOA	160	%44	0	18	27	33	9	3
OLABERRIA	969	%33	161	128	94	126	86	54
ORDIZIA	7.672	%30	1.012	967	1.059	1.263	457	561
ORMAIZTEGI	944	%21	31	222	250	178	21	42
ZALDIBIA	1.322	%29	87	96	186	497	28	45
ZEGAMA	1.121	%28	18	96	322	324	25	17
ZERAIN	190	%30	3	50	35	40	3	1
DENERA	32.041	%29.3	3.826	4.641	5.100	5.961	1.358	1.754



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Bodegon

GOIERRI
JATETXEA

Kale Nagusia, 20 Tel. 88 00 00 BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal esarraztea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfn: 88 88 24
BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfn: 88 60 70
BEASAIN

IZARRA OSTATUA



Logelak, eguneroko menua eta
berezia eta menu berezia aste
buruetan
Turismo gaztearentzat aparta

Errepide nagusia, 428 kma. LEGORRETA
Erreserbak: 80 60 44 telefonoan

ASTIALDIRAKO AUKERA EZIN HOBEA DUZU Aralarpean "Alarpe", Lazkaomendiko Zalditegia

Maiz askotan gerta ohi zaigu, egun libreak iritsi, asteburuak, "zubiak", oporrak, e.a., eta denbora libre hori nola aprobe-txatu ez jakin. Eliteko ekintza izango zen garai batean honakoa, baina pixkanaka ugalduz doaz zalditegiak eta arrakastatsua suertatzen ari da zaldi gainean ibiltzen ikastea. Traketsenak ere ikasten omen du, eta zergatik ez zuk?

Martin Garmendia zaldibitar gaztea da "Alarpe" Lazkaomendiko zalditegi-ko nagusia. Orain dela bost urte hasi zen negozio honetan, Larraitzen hain zuzen. Han zeukan zalditegi aretoa erre egin zitzaion eta "Alarpe" ireki zuen gero. Nazal-goiko parean dago eta Zaldibiako Miranda baserritik, Lazkaotik eta Ordiziako Oiangutik joan zaitezke bertara. Animatu zaitez!

--Nolatan hasi zinen esperientzi honekin?

--Naturak gozatzeko mila aukera eskeintzen dizkizu eta, nola ez, zaldiak dira hoietariko bat. Zaldian ibilaldiak egitea ez da hain gauza zaila, diru gutxirekin egin litezke eta asko nekatu gabe, gainera. Bestalde, langabezian nengoen eta ikusi nuen, abereen mundu hau gustatzen zitzaidan bezala gustatuz, sartu egin behar nuela horretan. Honela hasi nintzen, Larraitzen jarri nituelarik lehenik zaldi batzuk, dozena bat. Gertatuak gertatuta, Lazkaomendiko leku paregabe honetan jarri nintzen beste hainbeste kabaileriekin, diru-etekin bat ateratzen nuela ikusten nuelako, noski.

--Nondik ekartzen dituzu zaldiak?

--Normalean Valladolidetik ekartzen ditut eta, gertuenetik, Lizarratik, ia ke ta Nafarroan gauzak zailak dauden zaldiak lortzeko orduan; Ebrotik behe-
ra edozein lekutatik ekarri daitezke,



errazagoa da. Bertatik, Tuteratik eta Talla-
fallatik eta, kanpotik, Balentzia eta An-
daluzia-alde-
tik ekarri ohi ditut, baina batez ere apirila bitartean; izan ere, or-
duan bukatzen da, esan dezagun, epea
zaldiak handik garraiatzeko. Esan
behar da, ekarritakoan, 40 egun behar
iragan behar dituztela albaiteko baten
kontrolpean. Beraien prezioa 150.000
pezetatik 300.000 bitartekoa izan ohi
da. Jakina, osasun baldintza onekoak
behar dute izan.

--Zein zaldi-mota erabiltzen da eginkizun horretarako?

--Darabiltzagun zaldiak zenbait arraza
gurutzatuta lortuak dira. Kontutan har-
tzekoa da jendeari zaldi ederrak eta po-
litak gustatzen zaizkiola. Hemen, Eus-
kal Herrian, pottokak ditugu eta horiek
potentziatu nahi dira, baina gure egin-
kizun honetarako ez dira egokiak, zer-
gatik ttikiak baitira, eta bestalde, He-
goaldean baino gehiago dira Iparral-
dean. Gureak handiagoak dira.

**--Zein motatako ibilaldiak egin dai-
tezke zeurean?**

--Sarrien, ordubeteko ibilaldiak eginen
ditugu, bai Amundarain eta Oiangu al-

dera eta bai eta Elbarrena aldetik Kal-
dereri aldera. Gero, bada, paseotxo
luzeagoak egin nahi izanez gero, La-
reo, Oidui edota Alotza inguruetara,
kontutan izanik Aralar berak oso lur
ona duela zaldiz zamalkatzeko eta, zer
esanik ez, dituen paisaiez gozatzea ere
badago.

**--Udatiar asko etortzen zaizu ber-
tara?**

--Denetatik. Jakinik, noski, ekonomi-
koa egiten dela zaldiak montatzea,
edonork egin ditzake ibilaldiok. Or-
dubetekoak 1.000 pezetako kostua du
eta hortik aurrerakoak, egun guztira-
koak direnean piska bat igotzen dira,
baina hala eta guztiz ere oso era poli-
tean ateratzen dira.


**--Zein da adinik hoberena zaldiz
ibiltzen ikasteko?**

--Hasi 12-14 urteetako gazteetandik
eta 50 urtetakoak bitartean ere etortzen
zaizkigu. Adina ez da baldintza bat
zaldiz ibiltzeko eta berdin-berdin dio
hala emakumezkoa izan, nola gizonez-
koa izan horretarako.

 **Koldo Zubeldia**

Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

**G U R P I L
BIZIKLETAK**

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

20200 BEASAIN

Paperaren herrian, Udalar papertegia

Zegama eta Legorreta izan dira Goierrin papertegi tradiziozko herriak. Zegama-koa itxi zen eta Legorretako Etxezarreta birmoldatu (Orain paper birziklatua egiten dute batipat). Arlo hau krisian den honetan, indar berriz dator Legorretako Udalar. Atzerriko papera maneatzuz, ordea.

Dakikezuenez, papera da arte grafikoko enpresek erabiltzen duten lehengai nagusia. Sektore honetako enpresa gehienek atzerrietatik ekarritako papera erabiltzen dute. Finlandiatik eta, orohar, Ipar Europatik ekarritako papera hemen bertan ekoiztutakoa baino merkeagoa eta kalitate hobegokoa izaten baita jeneralean. Kanpotarrekin lan egitea egotziko balitzaie, profesionalekin lan egiten dutela eta hori dela inportantea erantzungo dizute papertegi honetan.

Argitaldarien eta enpresek papera behar dutenean paper biltegiak jartzen dute. Udalar izeneko biltegia eta "Goiherri SA" manipulatutako planta Legorretan daude 85.000 geroztik, aurretiko Elduaiengo eta Legorretan bertako bi saioen ondotik. Bertako bazkidee-

tako batekin, Xabier Larrearekin egin dugu egonalditxo bat, horko berri eman diezagun. "Finlandiatik ekartzen dugu papera, hangō enpresa batek baititu hemen partizipazioak. Enso izeneko enpresaren papera banatzen dugu Espainia osora eta Frantziako hegoalde-
ra. Sare batean sarturik gaude, baina banatzaile soilak gara, eta ez bakarrak. Gaur egun biltegi gehienek funtzionatzen dute horrela.

"Suhiltzaile zerbitzua"

Bilbon duten biltegi nagusira 50tik 100 tona bitarte paper iristen da egune-

izan behar ditu, merkatuak eskatzen duen hori eman behar zaiola dio Larreak. "Zerbitzu erabateko hori ematea oso zaila da. Ondo zerbitzatu, hori da gure lehen legea. Zerbitzua, 'suhiltzailearena' egitea. Edozein arazori aurre egin, nolabait. Gero hitzegingo dugu". Eta horrek beste sarrera bat ematen duelakoan dago.

Papergintzaren mundua gainbeheran ez ote dihoan galdetu diogu Xabierri. "Ez dihoakigu ondo. Ojo!, zer da ondo joatea, papera saltzea merkatu batean edo dirua irabaztea? Arlo honetako enpresek ez dugu dirurik irabazten. Auditoriak egin ohi dizkigute, baita legea ezarri aurretik, multinazionala baitugu sozio, eta ondorioak dira kostuak estaltzen direla". Eta kontentu!

Ezin da ahaztu azken 10 urteotan paperaren prezioa ia %60 jeitsi dena. Momentu zailak dira, baina merkatuak zabaldu, paper tonak kolokatu eta zenbat eta bezero gehiagorengana iritsiz askoz hobeto doaztela dio. "Zentzu horretan ondo dihoakigu. Gehiagora goaz. Enpresa bezala, nahiago genuke papera garestiago balego. Ea urte hobeak datozen". Multinazionalen esku dago paperaren ekoizpena. Lehia handia sortu da ekoizlarien artean eta horren ondorioz nagusia prezioen gutxitzea izan da. Grafikako enpresarientzat ez da gaizki etorri.

Orain bai, Udalarren filosofia merkatuko prezioan saltzea da, baina zerbitzuan besteak gaudituz. Ahalik eta azkarren, ondoen eta gertuen zerbitzua esijitzen du bezeroak eta horretarako prestatuak egon behar da: logistika, aparatua, e.a. "Gaurko egunean produzitzea adinako inportantzia dauka kolokatzeko. Gaur bezeroak jartzen ditu baldintzak eta zuk ez baduzu zerbitzen beste batek zerbituko du. Fabrika asko ez dira konturatu horretaz, oraindik", diosku aditu honek. Hori bai, kobratzea gustatzen zaiela ondorioztatzen dugu bukaeran.

 Jon Arano



ro. Udalarrek bezeroek eskatutako neurritara mozten edota zerbitzatzen ditu: bai orritan eta bai bobinatan. Enpresa asoziatu honek komertzial lanak egiten ditu eta orritako papera Legorretatik pasatzen da, bobinetakoa ez bezala. Bezeroak nahi duen aukerak

Finlandiarrak Legorretan

Enso-Gutzeit Oy enpresa arloko munduko 18.a da eta orain gutxi arte 2.500 milio tona paper ekoizten bazituen urteko, 6.500 tonetara pasa da hilabete batzuetan. Talde honek Tampela OY enpresa erosi berri du gainera. Zentrak eta fabrikazioa Finlandian dute eta Holandako, Ingalaterrako, Italiako eta Legorretako biltegiek bakoitzak beren areako merkatua asetzen saiatzen dira: paper finak, idatz-inpresiorakoak, liburu eta

aldizkariak. Beren ardura da bezeroei 2 tona famatu horiek zerbitzea. Papera manipulatzeak plantaren, "Goiherri SA"ren, ahalmena urtean 50.000 tona manipulatzea da. Horrek ez du esanahi aurreikuspenak betetzen direnik. Denera 47 bat langile ditu, gehienak ingurukoak. Finlandiar bat ere badute lanean, informatika injinaria, logistikan kargu inportantea, bertan berehala lagunak egin dituen: Pasi Pohjanheimo izena du, "Patxi Goiherri" edo gisakoa suomieraz.

Manu Larrañaga, Lazkaoko "eguraldi-gizona"

Manu Larrañaga lazkaotar gazteak urteak daramatza Lazkaon botatzen duen euria jaso, apuntatu eta informazioa gordetzen. Ikasketaz kimikaria da, baina umetatik, beti gustatu izandu zaizkio eguraldiaren gorabeherak. Horregatik, goizean jeiki eta egiten duen lehenengo lana balkoira irten, zerura begiratu eta eguraldiaren berri jakitea da.

1975etik hasi eta paperean apuntatzen omen zituen egunero hozberoak, euririk egin zuen ala ez, haizerik bazebilen, oskarbi edo lainotsu zegoen, izotzik egin zuen... Guzti hori, noski, egungo meteorologi zentruak erabiltzen duten teknologiarik gabe... 75etik hasi bazen ere, ikasketak zirela eta kanpoan ibili zenez, ikerketa horiek eten egin zituen. Duela 5-6 urte, ordea, berriz ekin zion lanari eta egun horretan darrarai: "orain egunero euria bakarrik neurtzen dut; bueno, eta zerbait berezirik baldin bada ere apuntatzen dut: kazkabarra, elurra..."

Neurketa horiek egiteko erabiltzen den tresna oso ximplea omen da, *plu-biometroa*: arrasto neurtuak dituen ontzi bat. Neurketa, *metro* karratuko jasotzen diren *litroek* ematen dute.

Eguraldi-gizonak

Egunean zehar egunkari, irrati eta telebistaz ahal dituen eguraldi-saio guztiak jarraitzen omen ditu: bere datuak gonparatu, iragarpenak aztertu... horretantxe gozatu!

--Eta asmatzen al dute, Manu?

--Bai, gehienetan asmatzen dute. Mundu hau aurrerapen handiak bizi-tzen ari da, meteosat argazkiak direla eta... Emaitzak agerian geratzen dira,

Bildutako euria l/m2-etan

	1989	1990	1991	1992	1993
Urtarrila	26	104	66	34	7
Otsaila	103	42	54	25	126
Martxoa	40	46	102	185	58
Apirila	216	237	201	113	201
Maiatza	36	66	181	74	87
Ekaina	13	68	24	156	
Uztaila	77	46	21	42	
Abuztua	62	39	20	81	
Iraila	56	40	148	48	
Urria	28	83	111	355	
Azaroa	108	115	190	101	
Abendua	19	146	25	180	
URTE OSOA	784	1032	1143	1403	

dexente asmatzen dute.

--Inolako tresnarik erabiltzen ez duten beste mota bateko eguraldi-iragarleak ere badira: artzainak, baserritarrak, herriko jende arrunta. Zer pentsatzen duzu horietaz?

--Ba, nik ez daukat fede handirik era horretako iragarleetan. Tenporak direla eta, bakoitzak bere erreferentziak ditu eta jende guztia ez dator bat noiz

Zenbait datu

Inongo paperik gabe, buruz, datu ugari bota dizkigu Larrañagak:

--89. urtea oso lehorra izan zen: 784 l/m2ko bota zituen urte guztian.

--92an, 1.043 l/m2ko.

--Azken 5-6 urteotan 92ko urria izan da hilabete euritsuena: 355 l/m2ko botaz.

--"Orain arte ditudan batazbestekoa eginez, apirila izaten da urteko hila-beterik euritsuena". Kontxo!, San Prointzio pixontzia dela beti esan izan dugu, eta hara non, zientifikoki ere

izaten diren esatean ere. Gero, berriz, hiru gau jakinetan geratzen den eguraldia izango dugula hurrengo hiru hilabeteetan... Hiru hilabeteetan denetik egiten du; gutxi edo gehiago, batzutan asmatzen da, baina bestetan ez. Zalan-tzagarriak dira benetan.

Orain arte egindako datu-bilketaz ondorio berezirik ez omen du atera: "Izan ere 5 urte ez da ezer, denbora gutxi da ondorioak atera ahal izateko". Eta aurrera begirako asmoei buruz galde-tzean, oraingoz ez omen du helbururik: "gustokoa dudana, beraz afizio hutsez egiten dudana datu-bil-keta egiten jarraituko dut. Egia esan datu horiek landu, interpre-tatu eta ikerketaren bat egin daiteke, baina horretarako ere denbora behar denez, oraingoz behintzat ezin ezer egin."

Eguraldiaren inguruko horrelakoxe gorabehera interesgarriak kontatu dizkigu Manuk, ez eguraldi iragarleak, baina bai eguraldiaren inguruko datu-biltzaileak. Eskerrik asko Manu.

 Marijoxe Madariaga

hala dela erakusten digu Manuk...

--Aurtengo otsailaren 28ko elurtean plazako kotxeetan 26-27 zentimetroko elurra neurtu zitekeen. Eta aipatzekoa da hiru egun lehenago, 25ean, 0 azpitik 10°C izan genituela, -10°C alegia. Dena dela, 88an egin zuen elurtean, otsailaren 27an, larunbata, 30 zentimetro neurtu ziren; beraz, aurtan baino zerbait gehiago.

--Abenduan hemen ez du elurrik egiten. Egiten duena urtarrila eta otsailan; eta azaroan ere abenduan baino errazago.

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

MUJIKI AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi

tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



“Otsoa” Irratia

Ikasturteak irauten duen denboran, ostiralero-ostiralero eta eguerdiko ordubetetatik ordubiak eta laurdena, irratsaio berezi bat entzun daiteke FM 108 sintonian: “Otsoa Irratia” da.

Otsoa irratia, Ataungo Joxemiel Barandiaran Eskolak duen heziketa osagarri bitxi bat da. Irratia, 1985eko irailan hasi zen emititzen. Hasera-haseratik bere inguruan dabilen Marikarmen Iztueta irakaslea eta ikasturte hon-tako azken irratsaioa prestatu behar zuten 8. mailako ikasleetako hiru diren Goizeder Loiarte, Aiora Arrondo eta Naiara Etxeberriarekin egon ginen, guzti honen atzean zer zegoen jakin nahian. Hiru gazte hauek, aurt-en eskola hori utzi egiten du-telako egingo dute irratsaio be-rezi hori, baina irratia ren mar-txa, 7. mailako ikasleek erama-ten dute urte guztian zehar. Hizkuntza klasearen barruan kokatzen da irratsaioa egite hau, klasean, osagarri bezala, beste gauza batzuk ere ematen dituzten arren.

Irratsaioa prestatzeko erak, emisioak eta abarrek, aldaketak izan dituzte hasera hartatik. Eskulanetako taile-rra bezala hasi zen irratia. Horretarako, asteko arratsalde baten prestatu behar zen guztia, presak eraginda... eta, behin mikrofono aurrean eta gainontzeko tramankuluekin konfiantza hartu ondo-ren, lan hori euskarako klase bezala bideratzea erabaki zuten. Emisioa ber-riz, arratsaldeko 4etan izaten zen, kla-seak bukatu ondoren etxean patxadan entzun ahal zedin, baina udaberriko eguraldi onak eraginda umeak kanpora ateratzen ziren eta horregatik aldatu zen bazkalondora. Bestalde, saioak aurrez grabatutakoak izaten ziren, eta

horrek sekulako bizioak sortzen zituen: moztu eta behin eta berriro errepikatu beharrak, adibidez. Lan egiteko modu hura baztertu eta, bapatean, zuzenean aritzen dira orain ikasleak. Esan bezala, 7. mailako ikasleen gain dihoaz irra-tsaioak, baina astero txandatur, bere tarteak izaten dute eskola aurreko eta hasera zikloko umeek, “Txikin Txoko” deritzan saioan, eta hiruhilabeten behin edo, erdi zikloko gainontzeko ikasleek.

Ostiralean irratsaioa entzungo du-gunerako, berealdiko lan izkutu bat

ten dira. Ostegunean, bakoitzak bere zatiak eskura ditu eta etxera eramateko prest, aztertu eta biharamunean irra-tsaioa ondo moldatzeko moduan iza-teko. Ez da ezer inprobisatzen, guztia idatzita izaten dute.

Lan guzti hori hiru ataletan balora-tzen du euskara irakasleak: Txostena egin aurreko prestaketak, txostena bera (presentazioa, ortografia, esaldiak moldatzeko era, hiztegia...) eta azke-nik, emisioa bera. Eta Goizeder, Aiora eta Naiara ikasleak, txostena egitea lana dela badiote ere, emisio-ko momentuan oso ondo pasatzen dutela aitortzen dute. Gainera aspertzeko motiborik ere ezin dute izan, kurtso bakarra irau-ten bait du esperientzi honek; hurrengo ikasturtean, atzetik datozen ikasleek ekingo diote irratia-ri eta.

Marikarmen Iztueta irakas-leak garbi dauka umei bereal-diko lana suposatzen diela or-dubeteko irratsaio bat egiteak, eta helburua lan didaktiko bat egitea dela dio; irratia honen helburua ez dela informatzea, arlo pedagogikoa lantzea baizik. Otsoa irratia, ikasle guztientzako ariketa bat da; ez da irratigintzarako trebeenak izan litezkeenentzat bakarrik, hizkun-tza lantzeaz gain, aurreko prestakizu-netan norberari tokatutako ardurak be-tetzeko gaitasuna finkatzea da, nahi-taezko komunikazioa bideratzea... eta guzti hau kanpotik baloratzeko, esti-matu ahal izateko era bakarra, irra-tsaio-emisio ordutan irratia piztea da. Iztuetak garbi atzematen die 7. mailako ikasle berriei, beren aurrekoen irra-tsaioak entzuteko ohiturarik izan duten ala ez.

 Joxe Begiristain



geldituko da atzean. Hiruhilabetero egutegi antzeko bat prestatu ondoren, hiru fase izango ditu irratsaio prestake-ta bakoitzak. Bata, gaiak erabaki, gi-doa prestatu, elkarrizketak egin, iri-tziak bildu, musika aukeratu, e.a.; bi-garrena, ohizkoak diren sailak zehaztu: diska dedikatuak, agenda, horosko-poa... eta hirugarren fasea, lehen aika-tutako Txikin Txokoa. Guzti hau, 14-15 orrialdeko txosten baten jaso-tzen da eta euskarako klasean zehaztu eta borobiltzen dute. Txosten honen sarreraren kopia bana irratsaioan parte hartuko duten guztien artean banatuko da eta gainontzekoaren kopiak, bakoit-zari norberari dagozkion atalenak iza-

Mandubiko Benta



☎ 88 26 73

Urolatik
bidean
MANDUBIA

Goierriako

Jatetxea



Gudarien Etorbidea - Tel. 88 39 60
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Lierniko eguna

Urtero bezala, uztailko 2. igandean (hilak 11) Lierniko prozesioa izango dugu Ormaiztegiarrok. Aspalditxo ohitura dugu hau. Garai batean ia herri guztia soinu hotsean mendiz joan ohi zen bertara. Egun honek bi alderdi uztartzen zituen: alde batetik erlijio ospakizuna zegoen, prozesioa, eta bestetik festa giro polita. Herri guztiaren egun bihurtu zen.

Baina azken urte hauetan pixkanaka pixkanaka itzaliz joan da.

Gero eta jende gutxiago igotzen da egun horretan Liernira: erlijioak ez du gure gizartean lehen zuen lekurik, eta gazteek dibertsiorako beste aukera batzuri heltzen diete. Nolabait esateko, betetzen zituen funtzioek garrantzia galdu dute gure gizartean. Horregatik, iruditzen zait etorkizunerako herri guztiaren ohitura modura eutsi nahi badiogu, guztion artean zerbait pentsatu eta egokitu beharrean izango garela. Bestela, urtetik urtera jaisten joango da.

Aurtengorako programa oraindik guztiz zehaztu gabe dago. Urtero bezala, meza izango da, eta haurrentzako



Mutiloko Lierniko ermitaren zaintzailea, Serotegiko Alejo Telleria

jolasak ere bai. Giroa alaitzera trikitilari talde bat etorriko da. Beharbada bertsolariak ere bai. Eta zenbait "berrikuntza" aztertzen ari dira: herritar guztiak mendiz joatea, herrikoentzako txirrindu igoera antolatzea, herri-bazkaria... Ea egun polita ateratzen den.

Miludi argazki elkarte

Aurtengo udaberrian argazki elkarte bat sortu da Ormaiztegin. Izena Miludi du (Ojarbitik aurrera zegoen baserria). Milua landare bat da, usai ederrekoa eta anisaren antzeko ahogozoa duena.

Elkarte honen helburua herrian ar-

gazkizaletasuna bultzatzea eta argazkizaleak elkartzea da. Lehendakaria Iñaki Larrañaga ("Motriko") da eta beren asmoen artean: erakusketak eta filmina emanaldiak antolatzea, herrian argazkiak errebeltzeko laborategi bat jartzea... Parte hartu nahi duenak Udal Liburutegira jo dezake.

Berri laburrak

Ekainak 13 goizean, igandea, Udaletxe aurrekaldean, estankoko etxe berrian eta lehengo zaharren egoitzan, gaztetxea eskatuz pintada batzuk agertu ziren.

Ormaiztegi izan da aurreko hilabeteotan Goierrin biztanleko paper kopuru handiena bildu duen herria.

Uztailaren 5-16 bitartean udaleku irekia antolatu da. 5 urtetik 12 urte arteko neska-mutikoei zuzendurik dago. Goizean 10etatik 13etara eta arratsaldean 16etatik 18:30 artean txangoak, jokuak eta kirola izango dituzte.

12 urtetik 17 urte artekoentzat ere zerbait antolatu nahi da (arkuzko tiroketa, tenisa...)

Iñaki Amundarain

ALTZAGARATE JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora.

ALTZAGA.

ERAIKUNTZAK

OTEGI-UNANUE

EDOZEIN ERAIKUNTZA EGITEKO PRESTATUA



Beko-Kale, 17 - 1.º
Telefonoa, 16 02 22
20248 ITSASONDO (Gipuzkoa)



GOITGI OKINDEGI

Etxezarreta, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA



Santa María, 8 - Tel. 88 12 11 - ORDIZIA

Erreka-garbiketa

Nork dio gazteek ez dutela ezer egiten, diruagatik ez bada? Nork dio gizartea eta *denon* bizimodu hobetzeko gazteek ezer ez dutela egiten? Nork dio behartuta eta umore txarrean egiten dutela lan gazteek? Hiru galdera horiek erantzun bakararra daukate: *ez ba!* Eta ikusi bestela argazkia, ikusi bestela erreka (lehen baino askoz txukunago) eta ikusi bestela bertatik ateratako zaborra guztiak...

Ekainaren 12an, larunbata, Gazte Asanbladakoek detituta 30 bat gazte Agauntza ibaia garbitzen ikusi ahal izan genituen. Goizeko 9,30etatik eguerdiko 14ak arte jo eta su, baina umore ederrean, aritu ziren gure inguruz kontzientziatutako gazteak. *"Kontainer handi bat bete zaborra bildu genuen: sukaldeko labeak, txirrinduak, burdin puskak, konpresak, kamisetak, plastikoak... Pare bat aldiz isurbidetik uretara olio zikina nola erortzen den ere ikusi genuen"*.

Zubierreka parean, ur-ertzean zikina ikusten da, baina orokorrean ura nahiko garbia dago. Badira hilabete batzuk, zikinak-zikin, gure errekan ahate talde bat bizi dela ere. Normala den bezala "beraien etxean" gazteak ikustean izutu eta ihesi joaten omen ziren larunbatean, baina errespeto osoz jokatu



omen zen eta ziur azkenean ahateek garbiketa-saioa estimatuko zutela.

Badirudi bi eskuei txistu eman eta gogor ari direla lanean gazteak: larunbatero 7etan eta hainbat asteazkenetan ere, 5etan, Zelaiko beren txokoa biltzen dira: bideo-emanaldiak, irteerak, kirola, beren gustoko eta gizartearen onerako diren hainbat ekintza antolatu eta burutzeko. Euskal Herriko hainbat herritan Gaztetxeak isten ari diren ho-

netan (Bilbokoa kasu), mogitu beharra dagoela eta gogor jarraitzea beste erre-mediorik ez omen dago.

Beraz, dei bat hemendik Lazkaoko Gazte Asanblada, beraien txokoa eta ekintzak oraindik ezagutzen ez dituen guztiari, mogitzen hasteko, badela garaia eta animoa emanez!

 **Marijoxe Madariaga**

Ordizia

□ Jakintza Ikastolako zuzendaria den Manu Olanok aitortu berri duenez, irakaskuntzako sare pribatuan gelditzeak ez du esan nahi, ezta urrik eman ere, hori horrela geratu behar duenik betirako. Eskola Publikoaren sare barruan ez joatea erabaki zuen guraso elkar-teak, izan ere joera kritikoa da gehien-goarena, GOIERRITARRAren 32. zenbakian aipatu bezala. Jakintzak ez bide du zentru pribatu izateko bokazio-rik, eta askoz gutxiago elite-gogorik, eta hilabeteroko kuota berriak ez omen du galaraziko inola ikasleen sarbidea.

□ Ordiziako Festen egitarauak iaz baino 2 milioi gutxiagoko dirulaguntza izan dezakeela Udalaren aldetik eta hori dela eta Jaietako Batzordeak bere ezinegonaz azaldu zuen. Izan ere, iazko

kopuruaren berdintsua itxaroten zen, baina errekorreak 89.koaren berdint-suan uzten du aurtengoa. Gerrikoa estutzea agintzen du, agi denez, Udal on-dasunen egoera makalak.

□ Malkaskon egingo litzatekeen balizko zubi berriak 35 milioietako kos-tua izango luke. Bi norabideentzat izango luke lekua.

□ Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak Goierriko astialdi eta turismo-rako ikerketa lan bat enkargatu zion Maribel Royuelari eta honek burutu berri duela adierazi du. Goierriko he-rrietako ondare historiko-artistikoa, festak, tradizioak, ostalaritza eskain-tza, e.a. jaso dira eta 20.000 aleko za-balkunderako foileto banatuko dira.

□ Ordizia Kirol Elkarteko zuzendaritza osoak karguak utzi eta Udalarari utzi dio Kluba. 9 juntakide eta 6 bazkide aur-keztu ziren urteroko batzarrean, eta ho-ri da dagoen interes ezaren seinale na-barmena, ikusten denez. Udalarari da-gokio hemendik aurrera zuzendaritza berria bilatzeko jesterioak egitea.

□ Aspaldiagoko ohitura bada ere, orain dela 26 urtez gero dago Eguzki taber-nako Julio Goitiaren esku San Fermin-go zozketaren boletoen banatzeko ar-dura. Zozketa San Jose zaharren etxea-ren alde egiten da eta 100.000 zenbaki inguru saltzen dira, urtero errekorrak hausten dituztela. Bi milioi t'erd ingu-ru jasotzen dira eta Erresidentzirako milioi laurdena geratzen da.

IÑAKI AIERBE ZUZENDARIA, ITXAROPENTSU SORTUBERRIAREKIN

Badugu Musika Banda berriro

Bi hamarkada baziren Beasaingo herriak bere Bandaren doinurik entzuten ez zuela. Esan ohi da, aspalditik datorkiola herri honi musikarekiko tradizioa. Egiak izango dira esan hauek, 1866 urte inguruan bazegoen txaranga bat eta. Tradizio honi jarraipen bat eman nahian, Iñaki Aierberen zuzendaritzapean sortu da Banda.



Orain dela 4 bat urte hasi ziren Iñaki Aierberen zuzendaritzapean banda osatzeko lehen pausoak ematen. Hasiera batean, pianoa, soinua, txirula eta klarinetea besterik ez bazituzten ere, ondoren, Udalak emandako subentzio bati esker, tronboia, bonbardinoa, e.a. ere sartu zituzten. Hori zen Aierberen asmoa, piska bat itxaron taldeak gorpuzta har zezan eta gero, Musika Eskolako ikasleek osotutako talde hau jotzeko moduan jartzen zenean, banda osatu eta herriaren aurrean aurkeztu.

Eta Musika eskola eta Soinu Orkestrako zuzendari honek, bere nahia besterik ikusi zuen ekainaren 20an Loinaz San Martingo plazan, kiosko gainera igo eta herriaren aurrean aurkeztu zirenean. Gauzak, uste baino azkarrago joan direla aitortu digu: *"Gure asmoa hasiera batetan, kurtso amaierako kontzertu bat ematea zen ekainaren 20an. Bromatan aipatu nuen, aurkeztu egin behar genuela taldea egun honetan eta egunkariek banda sortua balago bezla hartu zuten eta gu ere hala aurkeztu ginen"*. Banda osatzeko ordea, 24-26 instrumentu behar dira eta

beraiek 19-20 izatean, taldez kanpoko beste batzuen laguntza behar izan zuten. Beste bandak ere hala moduz ibiltzen omen dira eta beraz, Beasaingo Banda hau, sortutzat eman dezakegula aitortu zigun zuzendariak.

Ikasleentzako irtenbidea

Beasaingo Bandari, Beasaingo Musika Eskolaren banda dei geniezaioke,

bertako ikasleek osaturik baitago taldea. Oso gazteak dira gehienak. Era honetan, ezin aukera hobe dute, etxeako eta klaseetako ordu guztien azken emaitza jendearen aurrean agertzeko. *"Tiro batez bi txori hil ditugu, Beasainen orain banda bat izateaz gain, Musika eskolako ikasleei irtenbide bat eman baitzaie honela. Garrantzi handia*

dauka, instrumentu horien ikasgaia ikasteaz gain, ikasten duten hori bandan jotzea lortzea". Hala ere arrisku bat ikusten du Iñakik, denborarekin ikasle asko kanpora irtengo dira ikastera eta banda utziko duten beldurra dauka. Bere nahia bandan jarrai dezaten da, noski. Hori behin lortuz gero, hemendik 4-5 urtetara, Beasainek banda erabat osatuta edukiko du. Ho-

nekin eta udaberriko igandeetan plazan kontzertuak ematearekin, gustora legoke.

Orkestra Sinfonikoaren funtzioa

Batek baino gehiagok galdetuko zuen honez gero ze alde ote dagoen txarangen eta banden artean, biek ere askotan jotzen baitute inguruak girotzeko musika. Instrumentuak dira elkar bereizten dituenak. Txaranga bat batez ere sasofoi, turuta, tronboi eta abarrek osatzen dute. Bandak, txarangak ez bezala, instrumentu oreka gehiago eskatzen du. Banda batek Orkestra Sinfoniko baten funtzioa betetzen du.

Lehen Beasainen egon zen bandak, dantza-musika jotzen zuen batipat. Denborarekin banda hura aldatuz joan bazen ere, bere garairik onena XIX mende bukaera izan zuen. Giroa jarri nahian, garaiko musika jotzen zuten. Gaur egungo bandetan, euskal giroko musika asko jotzen da, batez ere goizeresi eta kalejiretan. Azkenaldi honetan ordea, Ipar Amerikako musika ari da sartzen, jazz-a esate baterako. Itxaropentsu agertu da zuzendaria, Beasainen sortu berri den banda honekin. *"Garai zailena pasa dugu. Hemendik bi urtera edo, banda erabat osotuta egongo dela pentsatzen dut, eta gauzak ez badira asko aldatzen, Beasainek bere banda izango du hemendik gutxira"*.

Nekane Altuna
Argazkia: Fotoetxe

Musika Eskola bihurtu Kontserbatorioa

Orain dela 3 urte hasi ziren LOGSE legea zela eta gorabeheretan. Orduan Musika Eskola izateak bezeuzkan bere arazoak, hobbyz ikasteko aukera besterik ez baitzen egongo. Norbaitek bere musika ikasketak sakondu nahi baldin bazituen, kontserbatoriora joan beharra zeukan. Alderantzizko jokua ekarri zezakeen berriz, Kontserbatorio bezala lan eginez gero. Aierbek bi bide hauen arteko bat nahi zuen, mixtoa, nolabait esateko. Legeak ez zuen hau onartzen ordea. Hiru

urte hauetan, bestalde, gauzak asko aldatu dira. Orain Musika Eskola izanik, musika hobbyz ikasi nahi dutenez gain, benetan ikasi nahi dutenek ere izango dute beren aukera. Aierbek orain hiru urte eskatzen zuen zentru mixtoa litzateke beraz. Lau urtez osatuko da 1. go zikloan, programa berdina izango da denentzat. Musika entretenimendu gisa erakutsiko zaie, ikasketa sakonetan sartu gabe. Gero, bokazioak sortzen diren neurrian, ikasle hauek 2. go ziklo bat jarraitzeko aukera izango dute. Eskeintza, beraz, askozaz ere interesgarriagoa da oraingo Musika Eskola honetan.

Maiatzak sortarazi zituen ki-muak ekainaldean hasi dira fruituak ematen. Dagoeneko antzeman dezakegu han eta hemen milaka lore eta zuhaixken fruitu jaio berrien presentzia; uda parteko eguzki errainuen laguntzaz igaliak heldu eta udazkenean biltzeko prest aurkituko dira... Baina ez gara naturaren inguruan diskurtso eder bat ematen jardungo, zeren eta horiek guztiok dakizkigun xehetasunak dira...

Sanjuan-bezpera gaua

Badugu halere gure herrixka honen inguruan zer esanik; izan ere eta aurreko alean labur-labur aipatu bezala, "Izal"en, San Juan bezperan, suaren inguruan dantza egin ohi dugu, hirugarren urtea izanik aurtengoa. Eta zer esango dizugu ba irakurle! Oso ongi atera zela dena: 40 bat lagun elkartu ginen guztira eta afari eder batekin eman genion gau berezi honi hasiera; sabela ondo bete ondoren, sua piztu eta trikitixaren auspoak astintzearekin batera, txalapartaren soinu paregabeaz, jende multzo bikaina hurreratu zen suaren argitasunera. Ondoren "sorgiñak" eta dantzari guztiak beraien antzerkitxoari ekin zioten. Txistu, trikiti eta inguruko abesti doinuak laguntzaz ederki pasa genuen. Gainera, eta festari amaiera ederki emateko, Segurako Jaietara joan ginen guztiok, gau miresgarri honen xarma aprobetxatuz.

"Egon hadi lo eta jango diagu me"

Bestalde, eta irakurri berri duzuen esaldi honetxek dioen bezala, ez ginen lo egon, ikusi nahi baigenuen: izenburu bera duen antzerkitxoa ikusteko aukera izan genuen uztailaren 30ean, asteazkenean. Egia esan, ez ziren ez profesionalak antzezleak, baina ez zuten bategaizki egin. Herriko 9 lagunek, zuzendaria barne dela, sortu zuten obra koxkor hau, eta musika, dantza, mugi-



mendua eta keinu xelebreak medio, azkenean lan bikain bat izatera iritsi da. Fokoak, aszenategia eta jantziak ere oso aproposak ziren. Jendearen harrera hobezina, berriz.

Gaueko zinea herrian: Bai, bai, ez zaitez harritu, Idiazabalen eta urtean pare bat alditan, bada zine pantaila galant bat ezarri ohi dugu kalean eta udako gau epeletan pelikula dibertigarrien bat edo beste ikustera jende talde ederrak inguratzen dira. Aurten uztailaren 2an eta 16an izango dugu aukera hori, bietan ere gaueko 10etan. Lehenengoan "Tras el corazon verde" filma ikusentzun ahal izango da eta bigarren-goan "Big". Beraz, beste egitekorik ez duenak ateak zabal-zabalik dituz.

Uda-93ko ekintzak: Goierriko herri askotan bezala, herri koxkor honek tan uda partean herritarrak asper ez daitezen, ikastaro xelebre batzuek antolatuta dira. Besteak beste, hipika, tenisa, igeriketa, arku-tiraketa, eskalada... Badirudi jendea oso animatuta azaldu dela gainera. 15 bat eguneko ikastaroak dira eta adinaren arabera daude sailkatuak.

Gaueko ibilaldia: Aurten ere, iaz bezala, Idiazabalgo Mendi Elkartek

gauez ibilaldi zoragarri bat antolatu du, Lizarragatik San Donatorakoa, hain zuzen. Joandako urtean Aralarra joan ginen eta ezin hobeto pasa genuen. Gauean irten, ilargi betearen argitasunaren laguntzaz, eta ibilaldi jator bat burutu ondoren, izarrei begira lo hartu genuen eta egunsentiaren lehen izpiekin batera esnatu. Benetan merezi izan zuen esperientzia hura bizi izateak. Uztailaren 3tik 4rako ibilaldira gonbidaturik zaude, beraz.

San Inazio Jaiak

Halaxe da bai, uztailaren bukaera iristean eta gauak bero-beroak izango direnean ospatuko ditugu festak bertako San Inazio auzoan; urtero bezala jende ugari bilduko da auzo txiki bezain politean eta ziur gaude beste hainbat lekutan baino festagiho hobea aurkituko dugula. Ondo pasa nahi baduzu, Idiazabal aldera jo ezazu!

Hitzjarioarekin bukatzeko, uda ondorenerako ere gorde dezagun indar piska bat. Ondo-ondo pasa dezazuela uda eta, besterik gabe, datorren alerarte.

 Zirika Irratia

Eraikuntzak P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

Unanue

— GOZOGINTZA —

-Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
-Santamaria, 10 ☎ 88 11 49
-J.M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
-Obradorea: Filipinas, z/g ☎ 8812 65

ORDIZIA

San Joanak joan, herriko gida gelditu

Segurako festak pasa dira. Festa hauetan Euskal Bizikleta txirrindulari proba iritsi zen bertara jende usaian; inork uste baino jende gehiago bildu zen Sorotan Bele musika taldearen kontzertu inguruan, Euskal Herriko dantza txapeldun berriak aukeratu dira, e.a., e.a.

Horiek joan ziren, baina Segura herria, txokoak eta ondare historiko artistikoa ezagutzeko Udalak argitara emandako foiletoa hor gelditu da. Herria ezagutarazteko gida argitaratu berraren aurkezpena, Aitor Ugalde "Egunkaria"ko segurar kazetariak egin

zuen, bertan zirela Eusko Jaurlaritzako Lurralde Ordezkaria den Patxi Plazaola, Segurako Alkatesa, Karmentu Etxeberria, eta egileak.

Herritik sortu da ekimen hau eta 16 orri ditu Segurako

Gidak, gehienbat argazki koloretsuaz osatuak, beren esplikazio laburrekin. Leandro Telleria izan da argazki eder hauek egin dituenak, Joxe Mari Telleria margolariak diseinu lanak eta irudiak burutu ditu eta Rafael Gerrikok, berriz, testuak. Laureano Telleria herriazale ezagunak ere nolabait parte hartu du lanotan, argibideak emanez.

Produktuan herriko jauregi, elizbaseliz, eta abarren argazkiak ikus daitezke. Segurako bost portalak (Zeraingoa, Oxina, Atzekoa, Behekoa eta Goikoa); historia apur bat; Eliz-ermitetan: Ama Jasokundearen Parrokia, Sta. Isabel Komentua, serorategi izana; koru eta kulpitu ikusgarriak dituen San Andres; hazi bedeinkapena ohiz egiten deneko Sta. Engrazikoa; auzolanean berreraikitako San Sebastiangoa, aingeru beltzak gordetzen dituenak; Segurako Ganboitarrek Lazkaoko Oinaztar

jauntxoa menderatu eta hil ondoren, eskerrak emanez eraikitako Santa



Krutz...

Azaltzen diren jauregi batzu hauek dira: Balentziaga, Lardizabal, Arrue, Gebara, Ardixarra, Apaolaza eta Jauregi. Herriko beste zenbait etxe eta baserri ere ageri dira, futbol zelaia, tenis pista, igerilekua, bolalekua eta Baratze Pilotalekuaz gain. Herriko ohiturak, ikuskizunak, eta zenbait mapa eta plano ere ageri dira. Intereseko telefonoak ere ez dira falta. Badirudi ondo zabaldu behar dela honako gida txiki hau eta balioko al du Goierri eza gutzen joan gaitezen.

 **Interinoak**



AGIRRE
LAZKAO



GARABIAK - GRUAK
POLIPASTOAK
AGIRRE ERAIKUNTZAK
LAZKAO - Gipuzkoa

☎ 88 15 57




ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
 Tel. 88 71 26
 Faxe: 16 10 77
ITSASONDO
 (Gipuzkoa)



PAPELERA UDALAR



ENSO-GUTZEIT OY

Finlandian sortzen da ekologiaren
gainean idazteko papera

San Migel z/g LEGORRETA 20250 Gipuzkoa
Tfnoak.: (943) 80 64 36 / 80 64 42

 **Fotokonposaketa** lanak egiten ditugu **GOIERRITARRA**n, kartelak, foiletoak, inprimakiak eta mota hauetako lanak. "ANTZA" inprimategiarekin bat (*maisuen eskutik*) zure inprimategi lanak egingo ditugu. Deitu lasai ☎ 88 96 12 ♣

FOTOKONPOSAKETA

ANTZA

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnoak: (943) 37 15 45 Faxa: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

GRAFIKAGINTZAN
AURRERA GOAZ

Agurra Don Juan apaizari

Orain dela 74 urte Gabirian jaiotako mutil koxkor hau, alde batetik bestera ibilitakoa omen da. 6 urte zituela joan zen Urnietara bizitzera eta Ondoren Gasteizko seminarioan egin zituen apaiz ikasketak. Ikasketak bukatu eta Legorretara etorri baino lehen, Santa Marinaran eman zituen 10 urte umeei eskola irakasten eta ondoren Hernaniko Eskola Profesionalen irakasle bezala.

Berak dioenez, Legorretak ez zirudien oraingoa bera etorri zenean. "Langabeziarik ez zegoen, presoan prolemtikaririk ere ez (hori gero sortu zan), ez drogarik". Makina bat ezkontza eta bataio izango zituen, apaiz bezala ibili izan den 60 urte hauetan. "Garai batean 30 bat bataio izaten genituen, erdaldun asko etorri ziran eta. Orain berriz, 9 badaude nahikoak. Askok aldatu da, bertara etorri nintzenean danak joaten ziran elizara eta orain, zenbat joaten dira? 36 urte asko dira.

Umeak gauza asko dauzkate. Bideo famosoa. Hainbeste gauza pasa dira, Errepublika, gerra, Franco... Ez da harritzekoa aldaketa. Jendea ere asko ateratzen da, jubilatuek ere zenbat eskursio...". Geroz eta apaiz gutxiago daudela diote, baina denbora gutxian Andoni eta Xabier apaizak izan ditugula esan eta Xabier moldatuko ote den bera joandakoan, galdetu diogu. "Gure garaian 30-40 lagun ibiltzen ginen, orain

bi apaiz egiten badira... Ni etorri nintzenean hiru apaiz ginen Legorretan, orain bat geratuko da".

Baikor azaltzen da euskararen gainean: "Legorretan ez dago umerik euskaraz ez dakienik. Gerra ondoren ezin zan euskeraz egin, ez idatzi. Ezin zala ere... Baina ez zegoen gaur bezelako erreztasunik". Ikastola sortzeko lan asko egin behar izan zutela kontatzen digu apal-apal. Hasiera batean, mutilak

11an agurtuko dugu. Egun horretan, Eukaristiaren ondoren bazkari bat izango da. Bere etxe berria, Donostiako Apaizgoaren Erresidentzia izango da. Hain humoretsu eta apaltasun horrekin jarrai dezala.

Korpus Jai Eguna

Ekainaren 12an ospatu zen legorretarrok hain maite dugun Korpus jai-eguna. Aurten ere, zenbat estimatzen dugun erakutsiz ospatu genuen, nahiz eta eguraldiak ez asko lagundu. Goizeko 10etan eman zitzaion hasiera Bilkoin Elkartek antolatutako XV Kross Herrikoia-ri, 120 korrikalarik hartu zutela parte. 11 urte bitarteko gazte-txoetan Markel Urretabizkaia izan zen hoberena eta helduen mailan, berriz, Fernando Oliveira suertatu zen garaile.

Arratsaldean, Udalak herritar eta kanpokoentzat eskainitako ardo bikainarekin batera, IV Ardo Dastatze Txapelketari eman zitzaion hasiera.

Irabazlea Xabier Iturrioz izan zen eta 2. Patxi Latienda geratu zen. 8rak aldera, usadiozko afari-merienda egin zen herriko plazan eta afal ostean, 60. urteko musikari zegokion I Korpus Jaialdia. Ondoren eta goizalderarte festa giroa izan zen nagusi herriko kaleetan zehar.

 Xabier Glez. Ezama



Legorretako ezinduekin, eskubian, Don Juan Peñagarikano

eta neskak ez omen ziren batera egoten. Maistra ofizial bat eskatu zuten neskei klaseak emateko. Eta mutikoentzako Don Juan jarri zuten irakasle. Bertso-lariak ekartzeko garaian, berriz, gobernadoreari eskatu behar izaten zioten baimena. Zein bertsolarik hartuko zuten parte eta erabiliko zituzten gaiak, gobernadore berak onartzen zuen.

36 urte gure artean izan ondoren utzi egin behar gaitu On Juanek. Uztailaren



Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnok: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

GOIERRI-CHO OYU ESPEDIZIOA LAISTER ABIATUKO DA NEPALERA

8.201 metroko gailurra helburu

Joxe Ramon Lasa ormaiztegiarra eta Rafael Berasategi segurarra Himalaia aldera doaz Zumarragako Juanra Garitano eta Bittor

Umaran bizkaitarrarekin batera. Beraien helburua 8.201 metrotako altuera duen Cho Oyu mendiaren gailurrera iristea da.

Espedizio honetarako baimena Kanchungsen izan ziren goierri-tarrek eskatu zuten. Marronek espedizio bat antolatu zitekeela eta horretarako jendea animatu zuen GOIERRITARRatik eta honelaxe Joxe Ramon eta Rafaelak hartu zuten lekukoa. Nahiz eta partaide guztiak Goierrikoak ez izan, baimena eskatzekoan aurrekoek jarri zioten Goierri-Cho Oyu izenari eutsi diote.

Baimena mendia Nepal aldetik igotzeko dute, baina honek arazo bat dauka, igoera bidearen zati batek Tibeteko lurraldea zapaltzen duela. Hau nonbait ez da Txinako militarren gustokoa eta duela gutxi han izan diren aretxabaltar batzuk atxilotu dituzte. *"Baina badi-rudi udazkenean militarrek ez direla udaberrian bezain gora igotzen eta ez dagoela hainbeste arrisku."* diote lasai mendizaleek.

Hau Himalaian lehen esperientzia izango duten arren, aurretik Pirineotan asko ibiliak dira, Alpeak ere ezagutu dituzte azken 5-6 urteetan. Andeetan bizpauru aldiz izan dira bost eta seimilako mendiak egiten, halere jauzi handia dago 6.000tik 8.000ra *"besteetan helburua bukatzen den lekuan hemen hasi egiten da, 5.500 metrotan dago oinarritzko kanpamendua. seimila batean planteamentua 2-3 egunekoa da oso zaila ez bada eta 4-5 ekoa zailagoetan. Hemen berriz aklimatazioa dela eta, igo, jeitsi, berrir igo, iblitzeko beste mentalitate bat behar da."*

Gailurra irailak 20 eta urriak 7 bitartean egin ahal izateko abuztuaren 10ean abiatuko dira Tibet aldera eta urriaren 20an itzuli. Espedizio arina da beraiena, altuerako porteatzaileak eramateko ez dute asmorik eta soka finkoak badaramatzate ere ez zaie iruditzen erabiliko dituztenik. Euskaldun askok igo duten mendi hau zortzimilakoetan teknikoki errezena da. *"Serak edo elurrezko horma bat dago eta segun nola dagoen sokak jarriko ditugu, baina pare batekin nahikoa izango da. Alde horretatik arina da. Gustatuko li-*



tzaiguke alpetar eran egitea, baina aklimatazeko ez dakigu inguruan zer aurkituko dugun. Hemendik planteamentu batzuk eramangatik han ikusi behar dugu nola gauden"

Garrantzitsuena eguraldiak laguntzea da, hau beharrezkoa da aklimatazioa ondo egin ahal izateko. Arazo handienak haizea eta hotza dira. Everest baino beherago egon arren hotzagoa da Cho Oyu eta izozte kasu asko egoten dira, horregatik Everestera eramaten den erropa berdina daramate. Prestakuntza fisikoa ere garrantzitsua da maila hauetan. *"Garate sendagilearekin lehen froga pasa dugu. Entrenamendu oso gogorra espero genuen baina ez da batere astuna, astean hiru aldiz edo mendian ibili eta tartetan serie batzuekin egin, hori da dena,"* esaten digu Joxe Ramonek. Janari aldetik berriz beraien asmoa oinarritzko kanpamentuan ondo jatea da. Gorako janari tradizionala daramate, fruitu lehor, menbrillo, "kesito", te, zopa eta abar. Biofilizatuak eramaten hasi zen jendea, baina ez duela merezi diote. Batez ere likidua behar da, 7 litro egunean edatea, hori omen da izoztearen aurkako erremediorik egokiena. Astia duten guztian elurra urtzen aritu beharko dira gorputza sasoiean mantentzeko.

Diru aldetik nahiko larri dabilta, 4 miloeko aurrekontua daukate eta laguntza gutxi. Kamixetak salduz eta festetan taberna jarritz lortuko dute diru pixkabat, gainontzekoa poltsikotik jarri beharrean aurkitzen dira. Gastu guztiak ondo neurtuz, lehendik duten materiala ahalik gehien eramango dute, ekipo guztia beraien kontu bait doa. Garai batean espedizio gutxiagorekin dirulaguntza gehiago iristen ziren, baina gaur egun zailagoa da dirua lortzea.

Lan ugari eskatzen duen eginkizuna da espedizio bat antolatzea, hala ere ilusioz ari diren goierritar hauek zer bilatzen ote dute mendi gailurretan? *"Nik igotako mendi altuena Chimborazo izan da eta neretzat ikaragarria izan zen, ia negar eta guzti egin nuen eta pentsatzen dut zortzimila bat egitea izugarritzkoa izan behar dela. Iaz trekkin batean Everesteko oinarritzko kanpamentuan izan ginen eta hango mendiak ikustea zoragarria da."* dio Rafaelak barneko sentsazioak azaldu nahiean. Mendi zoragarri hoiek ikustez gain, egindako esfortzuen sari bezala igotzeko zortea izan dezatela Goierri-Cho Oyu espediziokideek.

 Mikel Albisu

Trekkin-a Salto del Angel-eruntz

Joan berria den ekainak 29an abiatu ziren 4 mendizale eta abenturazale ordiziar Venezuela aldera. Alberto Lopez, Iñaki Blanco, Luis Mari Lopez eta Ruben Vicente de Vera Pausogaizto Goierriko Mendizaleak elkarteko ki-deek osatutako espedizio honen helburua Amazoniaren bihotzean dagoen Santo del Angel-en gailurrera iristea da (Santo del Angel delakoa munduko ur-jauzirik handiena da; bere altuera: 1.065 m.).

Igoera honetan ez doaz bakarka ordiziarrek, baizik eta Meridako Andinismo Elkar-tearekin batera aurrea egiteko

asmoak dituzte. Ciudad Guayanatik irten eta behin oihanean sartuz gero, ibaiak izango dituzte garraiobide. Ur-



korronte azkarretan manejatzen bada-kien jendea lagun dutela egitekotan di-ra hori. Gailurra iritsi eta gero, abia-puntura iritsiko dira tontor ika-ragarri hura zeharkatuz.

Salto del Angel-i "bixita" egin eta gero, beste trekking bat burutzeko asmoa dute Pausogaiztotarrek benezolar Andeatatik barrena, eta Boli-var gailurra (5.007 m.) igoko dutelakoan daude. Urtebeteko lana eta enpeinu asko jarri dute enpresan gazteok. Milioi ba-teko aurrekontua dute tartean eta kamixetak saldaz e.a. da-biltza. Itzuleraren zain gaude. Ametsak beteko al zaizkie!

Bi lerrotan

□ Julian Garmendia "Kortatu" ibiltari legorretarra, 87 urte, oso ezaguna egin zen 1974.ean, Madriletik Donostia-raino (470 km., 9 etapa, 70 ordu, 12 minututan) egin zituenean. Atotxan izugarritako erreizibimendua egin zitzaion harakoan. Ibiltari etengabea gainontzean, bereziki Goierrialdean, gutako nork ez dugu ezagutzen? Bada, notizia da Kortatu, ebakuntza bat egin berri baitiote. Hobetoxeago hasi omen da jartzen eta ea noiz ikusten dugun berriro errepidean!

□ Lazkaoko pelotaleku zaharrear ekainak 20ean ospatutako erreboteko pelota partidua ikusgarria suertatu zen. Billabona eta Zubietako taldeen artean jokatu zen partiduen bidez berreskuratu du Lazkaok errebotearen tradizioa. Plazaren luzeeran jokatu zen, frontoitik udaletxera bitarteko

guztian, megafoniatik joku honen his-toria eta arauak esplikatzan ziren bi-tartean. Adinekoek bazuten aditzera garai batean bertan pelota-joku bitxi-ren bat jokatzan zena. Orain, konstan-tzia ere badute lazkaotarrek.

□ Herrera beroa egin zitzaion bere he-rrian "Marron" Agirreri. Ataun-Aiako auzoa jendez gainezka izan zen ongi-etorrian. Everesteko gailurra egiteko pasa zituzten une hoberenak eta txar-renak ere gogoratu zituen. Marronek bere satisfazioa erakutsi du lortu due-narekiko, nahiz eta bere sponsorrare-kikoa, parapentean hegan egitea, be-tetzea ezinezkoa suertatu zitzaion. Izan ere, baldintza oso gogorak izan zituzten, haizeak zirela, eta ez zen po-sible izan.

□ Beasaingo Kirol Elkarteko zuzen-

daritzak 92-93 denboraldiko balantze baikor bat azaldu zuen, kideen urte-roko batzarrean. 36 milioiko aurre-kontuaz baliatu zen eta 45.000 pzta. ko zorra izan du. Futbol-taldean berri-kuntza handi bat iragartzen da eta entrenatzaile berrian Periko Alonso izango da.

□ Beasaingo Antzizarren jokaturako areto-futboleko 24 orduko txapelke-tan bertako Palauskal taldea izan zen irabazle garbia, finalean Geltoki altsa-suarrei 9-3 irabaziz. 32 talde aritu zi-ren guztira lehian.

□ Ordiziako saskibaloiko txapelketan 400 gazte baino gehiagok parte har-tuko dute. Aurten lehenengo aldiz hiru maila ezberdinetan jolastuko da: hel-duen mailan 28 talde, infantiletan 9 talde eta mini-basketean 11 talde.



*Irakurri
eta
zabaltzazu
Goierritarra*

Zein da aldizkari irakurriena Goierri-n? Zure publizitatea 3.000 txokotara iristea nahi ba-duzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIE-RRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa.

Dei 88 96 12 telefonora.

XIX-eko telegrafo dorreen sarea Oria bailarako mendietan

Telegrafiak, alde zurretik ezarritako kodearen arabera, seinale optikoak edo grafikoak bidaltzeko edozein era har dezake bere baitan, bai esanahi bakan batzu erabiliz, bai sistema erregular oso bat eratzen duen esanahi-konbinazioaren bidezkoa ere. Alde honetatik, kultura guztiek garai bakoitzeko kultur estadioaren arabera sortu zituzten beren komunikazio bideak, keadar eta suak piztetik hasi, eta kanpai hotsetaraino. Baina C. Chappe izan zen telegrafo optiko berria sortu zuena 1791.ean. Sistema berria egurrezko masta edo zutoinez osaturik zegoen, eta gainpuntean, mugikorak ziren bina beso zituzten (besoak elkarren artean eta mastarekin anguloak itxuratuz) alfabetoko

letra guztiak adierazteko.

1835ean, Madril eta Gasteiz arteko telegrafo optikoen linea amaitu zen, bandera eta banderatzoen bidezkoa. 1840an, Lehen Karlistada amaitu zenean, distantzia handiko telegrafo lineak sortzeko asmoak agertu ziren, Madril eta penintsulako bazterrik urrunenak elkartzeko. Hartara, 1844ean, Jose Maria Mathe Aranguren ingeniari gipuzkoarrak proposatutako sistema onartu zen. Linea telegrafiko berria 1844ean inauguratu zen, zabaLEAN 6,5 m. eta altueran 10,5 m.tako harrizko dorre sendoez osatuta. Telegrafo optiko hau erabilpen gubernamentaleraiko soilik eraiki zen, eta dorrezain gisa ejertzitoko sargento, kabo eta soldaduak egoten ziren.



** Jose Zufiaurre Goya, 57 urte, beasaindarra, Etniker-Gipuzkoako Idazkaria da. "Aztarna-93"en, Tolosako Arkeologia Astean, parte hartu zuen maiatzaren 31tik ekainak 4a bitartean.*

Euskal Herrian zuen trazatua Armiñon eta Irun artekoa zen, Oria bailara ia osorik zeharkatzen zuelarik. Dorretzar hauen aztarnak aurki daitezke oraindik ere Uzturre mendi magalean, Ollaun mendian (Altzo), Aitz-Beltzen (Sorabilla) eta Oria haraneko beste zenbait tokietan ere.

Goierritarrak munduan

Ainhua Beristain zaldibiar antzerkizalea

23 urte ditu zaldibiar honek eta herabea da. Ez du "teatrera" fama handirik, baina hortan dihardu. COUko ikasketak zintzilik utzi eta Ingalaterrara abiatu zen ingelera hobetzerako. Antzokiak urrutiko gauza bezala ikusten zituen, informazio gutxi zuen mundu horretaz. Ingalaterran konturatu zen (hango kale-girok irekiko zizkion begiak, beharbada) posible zela berarentzat ere izatea antzerkimundua.

Honez gero lau urteko aktore-ikasketak bukatuak ditu. Donostian Antzerti Eskola bazela enteratu eta nahiko itsu sartu zen bertara. Gustoko zuen. Hasieran nahiko galduta ibili (dantza klasikoa ikasi behar...) ondo-



tik, berarentzat oso inportantea den nozioa jaso zuen: bere gorputzaren nozioa. Antzerkia egiteko era desberdinetatik bat aukeratzen jakin zuen, gorputz-espresioa lantzen duen hori.

Nahiz eta ez dakien lanerako-aukerarik izango ote duen bere-bere horretan, montai erraldoietatik kanpo ikusten du bere burua.

Dena den, kale-antzerki talde baten partaide dugu Ainhua orain, eskolako kideekin batera, eta zenbait emankizun eskeintzekotan dira uda honetan. Antzerkiaren egitura klasikoekin (zuzendaria, rolak...) hautsi, eta lagunartean pentsatu, joratu eta burututako antzezlanen zaleagoak baitira. Horrez gain, Yolanda Arrietarekin batera eginiko montaia batean daude goierritarra eta beste zenbait ikaskide, gorputz espresioan oinarrituriko eta inprobisazioetatik ateratako lan batean, hain zuzen.

GARBI autoserbitzua



- *Garbiketa, argiztaketa eta lehortze katea
 - *Pulitu eta briluztatzea
 - *Neumatiko eta olio aldaketa
 - *Especialitatea: autoen barru, moketa eta tapizerien garbiketa
 - *Motoren garbiketa
- Pol. Industrial. ☎ 88 27 30
ORDIZIA

UTOESKOL ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

□“Goiherriko Euskal Eskola”k, Maizpidek eta Lazkako Udaleko Kultur Batzordeak antolatutako IV Gerriko Ikerlan-Sariketan 1. saria hutsik geratu da. 2. saria, berriz, Klaudio Otaegi aurreko mendeko irakasle eta idazleari buruzko lanak jaso du. Egileak, Maiz-



Pello Jose Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Inixio Rezola, Gerriko IV Ikerlan Sariketan sarituak.

pide Euskaltegiko zuzendari eta irakaslearen diren Pello Joxe Aranburu alkizarra, Marian Bidegain gabiriarra, Ezkio-Itsasoko Antton Idiakez eta Iñaki Rezola ataundarra. Iaz Juan Inazio Iztueta zaldibiarrari buruzko lanarekin saritua izan zen laukote bera, berriz talde-lanean. Azken obra hau kaleratu da, eta orain burutu berri dutena (ez da makala izango, 150 orri ba omen dira!) datorren urtean ikusiko dugu. Lan oparoa burutzen ari zaigu horratio Maizpidetar talde hau!

Gainontzean, “Migrazio mugimenduak Olaberrian”, Arkaitz Arruabarrenaren lanak jaso zuen 3. Gerriko saria, eta Nekane Arratibelen “Etorkinak eta Euskara Lazkaon” eta Nekane Munduate eta Arantzazu Valeroren “Euskal Etnia barrendatzaile” ikerlanek, interesgarriak zirela eta merituzkotzat jo zituzten Epaimahaikideek (Jesus Altuna, Jokin Apalategi, Paulo Iztueta eta Karlos Otegi).

□Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa Ikerketa Historikoa sustatzeko

laguntza 1993 eskeintzeko eratu duen epai mahaiaren erabakia, aipatu laguntza Jose Maria Uriartek aurkeztutako egitasmoari ematea izan da. Lanaren izenburua “Deba Arroko Jenderia: Bilakaera demografikoa. Bizimodua (1770-1830)” da eta egileak aurtengo abenduaren 10erako burutu beharko du.

□Urretxuko mahai-inguru batean Lazkao Txiki bertsolari eta ditzolaritzat jo zuten. Laxaro Azkune, Felipe Barandiaran (bertsolariaren iloba), Rufino Iraola, Patxi Iraola eta Mikel Mendizabal bertsolariak bildu ziren haren bizitza gogoratu nahian. Barandiaranek kontatu zuen baserritik kanpo gertaturikoen berri ilunabarrero Joxemielek nola ematen zien. Umorea legea zein fin zen gogoratu zuten denek eta bere izaera poetikoa ere ezagutarazi zuen Rufinok. Mikel Mendizabalek bildutako guztien algarak eragin zituen Lazkao Txiki zenaren zenbait ateraldi xelebre aipatuz eta “ditzolari”tzat jo zuten.

□“Lagin” diskete berriak “Sonora Caribe” talde saltseroaren diskoa argitaratu du. Juanan Ros eta Pello Irizar dira kudeatzaileak, bata baxujolea eta pianojolea bestea, orain 8 urte JZK taldean zebiltzenak. Orain artean soinu-teknikari lanetan aritu dira, bai musika talde askoren zuzeneko kontzertuen soinuaz arduratzen bai eta ETBrako soinuak sortzen e.a. Diska berri honekin estreinatu badira ere, Ke + Da eta Drindots taldeen lanak kaleratu dituzte (hurrengo zenbakian eman beharko dugu zabalago Drindots-ek egindakoaren berri).

□Ekainak 22rte ikusgai egon dira Nikolas Lekuona artista ordiziar zenearen marrazki eta olio pinturak Donostiako Olaetxea Galerian. Ordiziako Barrenan, berriz, Rakel Legorburu eta Olga Madinaren lanak, ekainak 17tik uztailak 2a bitartean. Mikel Imazen poemak eskuprograman.

□Beasaingo “Ai Geala” Euskara Taldearen logotipo lehiaketan Ordiziako Miren Nekane Rodriguezek aurkeztutako lana suertatu da irabazle. Iñaki Larrazaren lanak berriz, aipamen be-

rezia jaso du. Beajeondeizuela!

□Zaldibiako Iztueta Fundazio sortu berriak idazlan sariketa bat ipini du martxan (ikus agenda). 72.ean Illati taberna montatu zuten lagun batzuk herri horretan, bere irabaziak ematen zituela, Ikastolarentzat, e.a.; demokrazia iritsi eta Ikastolak eta Nafarroa bat egiten dute, istituzioetatik diruak iristen zaizkie, e.a., eta taberna saldu zuten sortzaileek. Sobratu zitzaizkien 3 milioi eta pikoak hor eduki dituzte ia 10 urtez, zer egin asmatu ezinik, Jexux Sukia fundazioko presidentek Rufino Iraolari aitortu berri dionez. Orain urte pare batetik hona sortutako Fundazioaren helburua Zaldibiarekin erlazionaturiko edozein gairen ikerkuntza bultzatzea da. Ia 7.000.000ko kapitala dute eta horien interesekin ibili behar dira. Aipatu idazlan sariketan jende askok parte hartuko duelakoan gaude, ez dira mauka banatzen diren sariak!

□Beasaingo Arrano K.E.-k bere X urteurrena bete du. Urdiñarbeko Maskarada izan zen plazan eta Jaso eta Lazkanoren makilak ikusgai tabernan. Lagunarteko afariak eta futbol partiduek ere osatu dute egitaraua. 10 urteotan garrantzizko uneak bizi izan baditu ere elkarte horrek, garrantzitsuen duela urtebete Kale Nagusian egoitza berria zabaldu izana litzateke.

□Ataunen kokatuko litzatekeen Joxemiel Barandiaran Museoaren proiektua burutzeko nahia agertu zuen bertako Udaltzako duela urtebete. Baina JmB Fundazioan baita ere partaide diren Eusko Jaurilaritza eta zenbait Diputazio ez leudeke, oraingoz behintzat, horren kostuan beraiei dagokien zatia kargu egiteko. Gauzak horrela, Gipuzkoako Diputazioa eta Ataungo Udala gai honi buruzko diru kontuak konpontze bidetan dihardute. Aitor Auzmendi Kultur Batzordeburuak adierazi zuenez, Fundazioa asesoratze lanetarako prest dago, eta Udala, orain artean eginga dagoena kontuan izanda, museo proiektua ahalbideratu nahian.

□Maiatzaren 23an jokatu zen Euskal Heriko aurrekulari txapelketako puntuazioa berrikusi ondoren, Ramon Sanchez izendatu dute txapelkun, Mikel Sarriegi beasaindar txapelkunaren kaltetan.

16 URTE ANTZERKIA EGITEN, BADA PINPIX DEITZEN DIONIK J.R.Soroiz: "Arriskua zegok betirako Joxe Lontxo izateko"

Seguruena ezetz. Aldarte onarekin harrapatu ezkerro, bazitekeela baiezkoa ematea, baina zaila zela Jose Lontxorekin elkarriketaztea. Horixe esan zidan "Bederen 1" eko Xabier Agirrek bere herrikidearen telefonoa eskatu nionean. Eta egia da, Jose Lontxori (Jose Ramon Soroiz du berez izena) ez zaio kazetariekin jardunean aritzea gehiegi atsegin. Baina, esanak esan, hementxe duzue Jose Ramonekin, Donostiako Bidasoa tabernan, kafe eta teen artean, izandako hizketaldiaren nondik-norakoa.

Nik ez dakit telebistak jendea gaztetu edo ze demontre egiten duen, baina Jose Ramonek 42 urte dituela irakurri nuenean, ezin sinisturik gelditu nintzen. Ez du ematen edade hori duenik, askoz ere gazteago ematen du. Eta duen gazte-aurpegi hori ikusita, norbaitek pentsa lezake atzo goizean hasitakoa dela antzerkian. Ba ezta gutxiagorik ere! Orain 16 bat urte ekin zion antzeztari. Orduantxe sortu zen Xaribari antzerki-taldetik Pinpix, Ponpox eta Burutxuri pailazo-hirukotea. Oraindik bada legorretarrari Pinpix esaten diotnik ere.

Baten batzuk gogoratuko duzue nola larunbatero umeentzako programa egiten zuten Herri Irratian. Ordurako ezagutzen zuten Sto. Tomas Lizeoko ikasleek. Izan ere, antzerkia jolasen bidez irakasten baitzien hango haurrei. Gaur egun ere segitzen du ikastola horretan, antzerkia aukerazko gaia baitute neska-mutikoek. Baina egun batean, "Gure Herria" antzezlanean parte hartzeko deitu zioten garaian, zirt edo zart egin behar izan zuen, edo ikastola edo antzerkia. Eta antzerkia aukeratu zuen.



Z•M

Cipuzkoako Foru Aldundia

MUSEO • ZUMALAKARREGI • MUSEOA

Ormaiztegi • Gipuzkoa

Diputación Foral de Gipuzkoa

Bisita ordutegia:

Asteartetan: 15etatik 19etara

asteazkena, osteguna eta ostiralean:

10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.

larunbatetan:

10.30etatik 14.30etara, eta 15.30etatik

18.30etara.

Iriarte Erdikoa Etxea

20016 Ormaiztegi- Gipuzkoa.

Tfnoa.: 943-88 99 00

Faxa: 943- 88 01 38



HOBETU ZURE KIROLA MAJORIREKIN

Honako zerbitzu hauek ditugu

Pabilioia - rokodromoa - muskulazio gela - igerileku klimatizatuak
gimnasioa - squash - tenis - paddle tenis - sauna - UVA izpiak
hidromasaja - kirolerako masaiak eta terapeutikoak - kirolerako
medikuntza zentroa

Irakasle espezializatuak zuzenduriko taldeak

Aerobic - gorputz zaintza - 3 adineko gimnasia - Dantza hastapenak
tenisa - muskulazioa - igeriketa - zuzendua edo hidro - gim - tenisa - judoa
igeriketa

Ordizian espero zaitugu!! Tel. 88933/53

Bai Horixe, Ama Begirazu, Bi eta bat

Jose Ramon Soroizek burutu dituen azken bi antzezlanek izugarritzko arrakasta izan dute. Alde batetik, "Ama Begirazu"n, eta, bestetik, telebista-koak, "Bi eta Bat"ek. Badute biek ere elkarren antzik. Bietan umorea da nagusi, eta gidoiak eta antzezlanak oso onak dira. Baina hori ez da nahikoa izaten, entsaioak egiteko astirik ez bada izaten. Eta zorionez, "Bi eta Bat"ekoek izan dute entsaioak egiteko

tzutan errepikatu egin behar dala... Pena ez direla holako lanak egiten orain HABEn".

Antzezleen bizimodu latza

Horrelakoak edo bestelakoak. Guztiak beharko ditu Soroizek bizimodua aterako badu. Eltzekoa etxeratzeko gogor egin behar izaten dute lan antzezleek: "Antzerkitik bizitzeko? Gaizki! Etzegok. Hori duk kontua. Pena dek. Zenbat kobratuko dek ba? 10-20.000 pezeta emankizuneko? Hilero bat egiten bada... bizi hadi horrekin! Dirua, telebistak ematen dik".

Eta ospea. Baina, porrot egiten bada, ospea etorri bezain pronto joaten da: "Telebistatik bezalakorik etzegok. Hi arituko haiz antzerkia egin eta antzerkia egin, eta ona izango haiz gainera, eta betiko militanteak ezagutuko hau... Baina telebistan agertzen ez bahaiz... Gero Jose Lontxo pertsonaia agradezitu dek, nik uste jendeak bere burua ikusten dikela, hain sinplea dek, akats piloa dizkik, baina beti aurrera hala ere... Baina kontuz ibili beharra zegok. Egiten dek edozein programa txepel, eta gaur goian eta bihar behean... Hori dek telebista". Ikusten duzue, goierriar honek ez du bizitza guztian Jose Lontxo izan nahi. Konturatu da arrisku horretaz.

Horregatik "deskantsatzen" utzi nahi du pertsonaia, eta ahal bada (horretarako norbaitek deitu egin behar),

beste antzezlanen bat egin, beste zerbait. Hala eta guztiz ere, bada zerbait inoiz lortuko ez duena: ikusleak Jose

Umorea da gehien eskertzen dena

Lontxo eta "Bi eta Bat" ahaztea, edo "Ama Begirazu". Izan ere, jendeak barre egiteko gogoa dauka, eta nahiz eta umorezkoak ez diren saioek ere (onak direnean) arrakastarik izan duten, "umorea da gehien eskertzen dena, eta egiten zailena... Eta gutxitan egiten dek. Pelikulak eta egiten hasi garenean, beti gauza serioak egin dizkiagu. Dena den, orain bazeudek telebistako muñeko horiek eta...". Txoko Latex programari buruz ari da. Eta guri, txokolatea ez baina, tea bukatu zaigu aspaldi: "Neri etzaizkitela entrebistak gustatzen eta horrenbeste hitz egin al diat?", bota du piska bat harrituta.

Ba hala da, horrenbeste hitz egiten du, eta daraman bide onean segitzen badu, zeresan franko emateko dago oraindik egun Donostian bizi den Legorretako Jose Ramonek.

 Jon Imanol Iturrioz

Antzerkitik bizitzeko? Gaizki!

betarik. Baina beti ez omen da horrela gertatzen. Telebistako platoak alokatzea garestia denez, batzuetan presaka eta korrika egiten dela lan esan digu, eta ez dela harritzekoa egun bakarrean ordubeteko emankizuna entsaiatzea.

Horrez gain, esan behar da lehendik ere jarria zela Jose Ramon kamara baten aurrean. Izan ere, hiru urtez aritu zen HABEren euskara irakasteko "Bai Horixe"n: "Hor ikasi genian kamara baten aurrean egoten, Juan Miguel Gutierrezekin. Eta orain antzematen zaiguk, bazeukiagu prozesua zein dan, ba-

 **inlingua**
hizkuntzak

JATORRIZKO IRAKASLEAK
MAILA GUZTIAK
INGELES A ETA ALEMANIERA
Matrikula zabalik
Ikastaro trinkoak irailean

J.M. Iturrioz, 11-1. Elkano kalea, 8-1. Iparragirre, 8-1.

☎ 16 05 72

☎ 88 11 37

☎ 72 22 23

BEASAIN

ORDIZIA

ZUMARRAGA

 **THINDOKI, S.A.**

ESKEINTZA: KUBAN ZEHAR ZIRKUITOA

(15egun) 139.900 pzta.

IRTEERAK: abuztuak 21, 22, 28 eta 29

AUKERA BEREZIA: ORDIZIAKO JAIK-XACOBEO 93

Irteera, uztailak 24, 8 egun 57.100 pzta.

MALLORKA 8 egun p.o. 36.300 pzta

*Beste hainbat eskaintza dauzkagu zure zai.
Zatoz ikustera!*

*Eta ez ahaztu goierriarrei %5-eko deskontua
eskeintzen jarraitzen dugula*

Urdaneta, 11 beheak ☎ 88 72 00 ORDIZIA



ZERAIN

Ibilbideak eta zer ikusiak

Ikuskizun hauek bisitatzeko bi ahalbide daude, bidai antolatu bezala edo astegunetan Udaletxera deitu behar da aurrez 80 17 24 telefonora goizeko 10,30 etatik eguerdiko 14,30 etara.


Asteuruetan ikusteko ordutegi hau izango da.

- Eliza: Goizean 10 etatik 11 etara
Arratsaldean 18 etatik 19 etara
- San Blas ermita: Goizean 11 etatik 12 etara
Arratsaldean 17 etatik 18 etara
- Larraondo serra: Goizean 12 etatik 13 etara
Arratsaldean 16 etatik 17 etara
- Kartzela: Goizean 13 etatik 14 etara
Arratsaldean 19 etatik 20 etara

Ordu hauetan laguntzaile bat izango da.

Sarrera bakarra ikuskizun denetarako 200 pzta.

INFORMAZIOA: 80 17 24



ZERBITZU OROKORRAK

ERAIKUNTZA, MUNTATZA ETA MANTENIMENTSUA

EFZ

* Karakol, zeharkako eta abar eskilarak.

* Entrepilantza estrukturalak:

⇒ Igogailu edo montakargak.

⇒ 2.000 Kgmrarteko mota guztietako pluma besodunak.

⇒ 3.000 Kgmrarteko monorail eta puente gruak.

Ibabe Industrialdea, 7

LAZKAO

Tfona: 88 86 59

Faxa: 16 00 34

KALITATEZKO ELIKADURA, OSASUNAREN OINARRIA



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

* **Baserritar:** egin erakargarri zure produktua.

* **Erosle:** bertako produktuan dago zure aukera.



NEKAZALTURISMOA



Arraultzaritza
eta salmenta

Bikuña 19 eta Gurutzeta gaina
IDIAZABAL

Tel.: 80 12 59 - 80 10 77

Faxa: 80 14 76

GORBEL HAIZEA

DISEINU GRAFIKOA

G.H.

ETA PUBLIZITATEA

DISEINU GRAFIKOA ETA PUBLIZITATEA

Logotipoak, katalogoak, buzoiketak, ilustrazioa eta Liburu-irarketa.

ERROTULU ETA ARGIZKOAK

ibilgailuetan, dendetan, pabiloietan, industrialak norbere diseinuarekin

SERIGRAFIA

pizkailuak, boligrafoak, eta publizitatezko edozein motatako gaietan.

ORDIZIA-Tfnoa: 16 12 87 - LEGAZPI-Tfnoa: 73 43 61

TXANOAK
KAMISETAK

POLOAK
IZERDI-ZAPIAK

Festetako zapiak

KAMISETAK

ENPRESETARAKO

DENDETARAKO

NORBERE ANAGRAMAREKIN

OIHAL - PUBLIZITATEA

Egun handia gertuago

□ **Kilometro-festa** bakoitzak bere abestia izaten du eta, maketa mordo bat eskuratu eta iritzi ugari jaso ondoren, "Sorotan Bele" musika taldearena aukeratu da. Hasita daude dagoeneko grabaketa arazoez arduratzen eta udako oporretarako singlea grabaturik eukitzea espero dute. Kasete bat ere argitaratu nahi da eta KM-93 Jaiaren sintoniarako aukeratu den abestiaz gain, lehiaketan parte hartu duten batzuen (Karlos Gimenez, Drindots,...) eta herriko koru eta musika taldeen lanez osatuko litzateke. Gogoz hartuko dugu denok ere!

□ **Kilometroak 93 Everesten.** Munduko gailurreraino iritsi zen datorren urriaren 3an Ordizian ospatuko den Kilometroak 93ren oihartzuna, orain dela gutxi Everestaren puntara iritsi zen Arabako espedizioak eramanda. Joxe Ramon Agirre "Marron" espediziokide ataurdarra, Nepalerantz abiatu baino egun batzuk lehenago ikastolan izan zen bisitan, eta bertako ikasleek Kilometroak-eko hainbat kamiseta, sinbolo e.a. eman zizkieten Everestera eramane zitzan. Agindutakoa bete duenez, Kilometroak 93ren antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete mendizaleei.

□ **Kotxe eder baten zozketa** martxan du Kilometroak-ek. Idea berria martxan da: Gipuzkoako Opel Banatzailleek, KM-93ek egingo dion publizitatearen truke, "Opel Corsa Swin" bat



eman diete oso presio onean eta ondorioz Errifa bat atera dute, prezio egokian. Norbaitek norberarentzat eros-teaz gain, bere lantokian eta laguntaldean saltzeko aukerarik balu, Kilometroak bulegora inguratzea nahikoa luke. Errez salduko dela dirudi, baina hemen ere jendearen laguntza beharra.

□ **Salmenta, erronka nagusia.** Salmenta batzordea gogoz eta serio ari da. 200 bat lagun ari dira lanean, aspaldidanik. Talde polita ari da antolakuntza lanetan eta, horrez gain, badira 2 eta 3 pertsonako 35 taldetxo salmentara

kanpora irtetzen direnak. Eta talde hauek orain arteko eskakizunak ondo bete badituzte ere, uda garai honetan beste horrenbeste talde behar dituzte: 35 edo 40 talde berri, Euskal Herriko festetara eta gure hondartza inguruetara azaltzeko. Salmentak, kopuru handitan eginez gero, diru asko ematen du. Ekonomia alorretik begiratuta, izugarrizko garrantzia du batzorde honek. Familia edo lagunekin osa daitetze taldetxook eta antolakuntzakoek nahikoa dute pertsona baten izane eza-gutzea. Anima zaitezte eta eman zuen izenak!

□ **Azucar-zorrotxoak eta Errioxako ardoa** ere salgai. Ospakizunaren izenarekin komertzialduko den ardoa aukeratu da. Beltza, Errioxakoa, iada merkatuan dago salgai, eta baita beren bulegoan eta salmentarako duten dendan. 12ko kaxatan edota oparitarako 3ko kaxatan dauzkate. Berehala izango dute ardo gorria ere. Norbaitek nahi balu, badaki nora jo. Eta noski, on egin!

□ **Kilometroak-93 eta GOIERRITARRA** Aldizkariak, gehigarri berezi bat atera behar dugu bateginik, urriak 3an (egun haundian), banatzeko. 24 orriko gehigarri horren 20.000 ale botatzeara espero dugu Ordizian banatzeko. Bai separata eta bai gainontzeko aldizkaria, goierritarrek bakarrik jasoko dute. Ale berezi horretan publizitatea egin nahi lukeenak dei biezaigu 889612ra.



ARCO EUROPA
URREZKO IZARRA
KALITATEARI

- BOILOTXOAK
- KRUSANAK, e.a.

Telefonoa: 88 55 00

ORDIZIA - BEASAIN



Klaudio Otaegi (1836-1890)

Klaudio Otaegi euskal idazlea Zegamako Arangoiti etxean jaio omen zen, hain zuzen 1836an mundura etorri eta 14 urte zitue-
nean bere jaioterriko organistatza lortu zuen lehiaketa bidez. Gasteizen maisu-ikasketak burutu eta Lutzia Richard Grandmontagne-rekin Zegaman ezkondu zen. Klaudioaren emaztea eta Luis Luziano Bonaparte-renak ahizpak izan ziren.

Hemen amaitu zen gure zegamarra-
ren bizitzako lehen etapa: Bonaparteri Zegamako euskalkia finkatzeko hain baliagarria gertatu zitzaion, ezen hortxe errotuak izan bait ziren berak Printzearentzat egin zituen dialektologiako lanak. Hortxe irentsi zuen Zegamako "euskerea". Hurrengo urtean, 1858an Hondarribiko lehen mailako hiritar eskolako oposaketak irabazi eta hil arte, 1890 urtera arte, bertan eman zituen 32 urte luze bezain emankorrak.

Klaudioaren bigarren etapa honetan, Hondarribiko irakasle izateaz gain, beste anitz arlotan mugitu zen eta abaniko handiko lan-motak burutu zituen. Horietako batzu aipatu soilik egingo ditugu: Bonaparteren dialektologian parte-hartzaile nagusienetako bat, Gipuzkoako Batzarre Orokorretako itzul-
tzaile, "Euskal-Erria" eta "Revista Euskara" aldizkarietako kolaboratzaile oparoa, Lore-Jokuetan 16 sari irabaztera iritsi zen, bai poesian bai prosan, sormen-lanetan nahiz itzulpenetan iturri oso emankorra izan zen.

Oraingo honetan bi adibideetara mugatuko gara, bata prosan emana eta bestea olerkia izango direlarik.

Elizondoko Lore-Jokuetan, 1879. urtean, euskararen aldeko bere "curriculum vitae" a aurkeztu zuen eta euskal maisu-ereduaren saria irabazi, lan hori zela medio:

"Eskola-Maisu bezela dedan egin-bidea, ezin liteke egiñ gauza aundirik euskararen onean, zeren mundu guziak daki obligatuak gaudela erdaraz erakustea eskola aurrari; baña ala ere, aldeko oni faltatu gabe erakusten dizkiet dotriña euskaraz, baserritarren semeai eta beñere itzik erdaraz bere echeetan aditzen ez dutenaei; zergatik orrelakoen gurasoak ala nai dute, beren aurrak maiz eskola biralduzteko



modurik ez dutelako, esanaz, beintzat ikasi dezatela Dotriña. Gañera, nola euskal-erriko eskoletan bear dan modu berezi bat erdaraz erakuzteko; itzik ez dakitelako geyenak izkuntz onetan, ikasera zten zaye buruz euskal-erdezko iztegi edo Diccionario batetik, izketan aditzeko bear diran izenik berezienak...".

Bere hitzei jarraiki, "Euskara beti bizi dedin, Erderaz ez itzik egin", hau xe izan zen Klaudio Otaegiren kontradikzio nagusia: horrela pentsatu eta euskaraz besterik ez zekiten Hondarribiko haurrei 32 urte luzetan erdara erakustea, Hondarribiko umeteria erdaluntzea.

"Euskal-Erria" aldizkarian, 1887. urtean, On Klaudiori, barru-barrutik, labur bezain esanahi haundiko poema hau sortu zitzaion:

LAU ARBOLATXO

Lau aritz bigun ziran
Mendi larrutuan
Jaio izandu bata
Besteren onduan.
Aize txirimilo ta
Ekaitzak zebiltzan
Geldi gabe burruka
Laurak zati naian.

Lur guri gutxi, eta,
Azalean zainak,
Aen gorputzak ziran

Meak eta argalak.
Eta, baldin arkitu
Baziran aparte,
Garbituak izango
Ziran, duda gabe.

Bizi naiak, ordea,
Erakutsi zien,
Nola ezti etsaiai
Erazitzen zaien.
Esan zioten, bada,
Alkarri, --mutillak,
Gurutzatu ditzagun
Irmeki adarrak;

Lagundu alegina
Batak besteari,
Aizearen urruinak
Ez ditzan ebaki.
Eta modu onetan
Dizkigu betiko
Ekaitz setatsu oek
Aisa garaituko.

Alkartasunak zetuk
Txikiak aunditzen,
Eta elbarritsuak
Indartsu biurtzen.--
Esan eta egin: euren
Adarrak zituzten
Txirikordatu ala,
Non bat ziruriten.

Eta geroztik dira
Laurak bat eginik,
Aitz aek doatsu
Alkarri itsatsirik.
Zeren alperrik dira
Ekaitz indartsuak
Lurrera botatzeko
Aritz anaituak.

Euskal-erria, libre bizi nai badezu,
Ispilu eder ontan begira ezazu.

Olerki horiek hobeki ulertzeko, agian komenigarria litzateke bere garai historikoa, hau da, karlistek gerlak galdu dituztela gogoratzea, eta zegamarraren beste poema hura irakurtzea: "Elkar gaitezen denok, Napar-euskaldunok!", baina hori beste batetarako utziko dugu, Klaudioaren meategia egun batean ez bait da agortzen.

Lazkaoko Maizpideko Klaudiozaleak

"Ancha es Castilla" goierritarren "Hueco". "TX", Olaberria.

85.ean sortu eta "Dios esta con nosotros" singlearen ondotik hiru disko eman dituzte argitara: "Fantastical" (87), "Confucio" (88) "Oihuka" rekin eta denbora puska bat pasa ondoren datozkigu "Hueco" delakoarekin, EHko musika munduan arras ezagun den Anjel-en, (Glez. Katarainen) Olaberriko "TX" zigiluaren eskutik. 500na Lp, konpakt disk eta zinta jarri ditu kallean "Gor" banatzaileak eta oso sistima ontzat jotzen dute hori musikazaleok.

20 eta piku urterekin plazaratutakook 30aren inguruan dabilta. Taldean nagusi dira beasaindarrak, Aitor Antxia, Juan Ramon Velasco eta "Payi" Aseginolaza, "alma materra"; Gurutz Bikuña ataundarra salbu. Juanan Rosek ez du jotzen iada bertan (Pello Irizarrekin "Lagin" zigiluan dabil, portzierto). Musika talde hau ez zen planteamenduz josia jaio, hasi eta segitzea, gustora ibiltzea baino pretentsio gehiagorik ez zuen. Eta ibilbide "normala" egin du beraien esanetan: entsaiatu, diskoak grabatu eta hortik zehar jo.

Dena den, sona bat beti izan du "Ancha es Castilla"-k, kantu ironiko, inteligenteak eta korrosiboak gauzatu izana. Ia beti bezala, "Hueco" honetan ere, Payi da ia musikagai guztien konposatzaile. Letretan gauza pertsonalak daude, kostunbrismoa lantzen dute, ez da inolako pretentsio arrarorik, irteten denari musika jarri eta abestiak sortu. Denetik esan izan zaie, popa, rocka, edozein izen du hoberena beren soinuak, eragin pilo bat aurki daiteke.

Azken disko honen abesti gehienak joak zituzten zuzenean duela zenbait urte; beraz, janda zegoen, gauza oso plantautu, garbi zegoen nola burutu bakoitza, horregatik animatu ziren grabatzera. 1. singlea "40 Principales"-etan egonagatik, nahiko minoritarioa izan da talde hau; onak edo txarrak diren



besteek esan behar, arrunt-tzat jotzen dituzte beren buruak. "Ancha"-k ez du jira-bira handirik egin (nahiz 1. diskoa atera zutela eta leku dextentetik deitu zitzaizen jotzera joateko); izan ere ez dute managerrik, ez ezerrik. Hortara dedikatzea ez dute pentsatu ere egin eta beste lasaitasun batekin planteatu dituzte gauzak. Horregatik eman dituzte urteok grabatu gabe.

Diskaren azala eta barruko irudiak Fifo Lopez donostiar artistarenak dira, Pello Ramirezek eskusoinua eta txeloa jotzen du zenbait abestietan, gainontzean Juanjo Pedregosa eta Fat Estebanen kolaborazioak izan dituzte. Sortzaile guztiak saiatu ohi dira beren produktua itxura onean aurkezten. "AeC"-k osotasunean zaintzen ditu: azal eta barneak, kontrataziorako kartel eta iragarkiak, gusto bat nabaritzen da egiteko orduan eta ez da hortik urruti ibiliko Aseginolaza, izan ere, beste musikari asko legez, komiki-egile bezala ere aritua da eta aritzen baita "TMEO" eta bestetan, ordenagailuz egina dauka halaber marrazki bizidunen laburmetrai bat...

Egiteko era bat dago. Azkeneko honetan bai ez dela ideia global bat: diska ilustratzen duen azalak ez dauka zerikusirik barrukoarekin. Barrukoak ere ez du loturarik, ezpada istorio urba-

noen arteko lotura, etorri bezala jarriak. Hortik, agian, gustoz egindako lanok gutxiengoentzat izatearena. "Confucio" diska gaizki irtendakotzat dute bere sortzaileek, gauza askorengatik; ez zela justifikatzen Lp-a, alegia. "Fantastical", ondo joan zen, gehiago saldu zen, ezagutzera eman zituen eta, denbora eta distantzia batetik ikusita, oroimen hobeagoa gordetzen dute hartaz. "Hueco" hau, berriz, beti esan ohi dena, azkena onena, baina benetan ere hala dela uste dute.

Abesti pilo bat doaz honako honetan, mezuen aldetik kalitate eta aberastasun bat dakar: 14 dira Lpan eta 16 konpaktean, 2-3 minutukoak bakoitza, beren ohiturari jarraikiz: "gustokoa" duten Julio Iglesiasen "La vida sigue igual"-en bertsio-parodikoa letrak aldatuta, Sanchez Ocaña medikuari eskeinitako kantu ironikoa, eta gero denetik piskat, "Zapatos verdes", "Gracias", "Todas mis penas" "Cuando vuelvas de Bilbao", "El sobrau", e.a. eguneroko istorioak. Nahiz sinisgarriegia ez egin, abesti oso serio eta sintzeroak ere aurkitzen omen dira, euren esanetan. Ironia, zinismoa eta txistea egiten denean nabari da egiten dena.

Ordenadore bidez sarturiko instrumentu pilo bat darabilte diskoan, bibolinak, tronpetak-eta faltsuak dira, banda baten itxura emateko asmoz. Abesti hauek gainera grabatzeko pentsaturik daude. Joera hau hedatua dago estudioetan eta hortik zehar, nahiz alde hauetan ohizkoa ez izan. Noski, zuzeneko emankizunetan, lau partaideen atzetiko banda hori ez dago, ezinezkoa litzateke, orkestra bat beharko lukete.

Diska berriarekin ez dute gehiegi espero, dirua berreskuratzea eta produktorari zuloa estaltzea, ze horrek ematen baitio talde bati diska errepikatzeo eskubidea.

Mikel Aramendi

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO:

Euskalerria K.

ORDIZIA

Tlfonoa: 88 04 15

Pentsuak

Ongarriak

Lantresnak

Industrialdea


OLABERRIA

Tlfonoa: 16 07 07

Nolakoa litzatekeen Euskal Herri libre

"Hilabete batzuk beranduago, 1966. urteko maiatzak 1.erako, ETAk Erandiora joateko agindu zion bere talde militarri, ikurriña batzuk jarri eta oktabilak banatzeko. Ez zitzaion, ordea, talde horri, edo bere buruzagiari behintzat, ekintza hura egokiena iruditu. Gauzak honela, Erandiora joan beharrean, Garai okupatzera joatea pentsatu zuten, Zumalakarregi edo Santa Kruz apaiza bailiren". Hitz hauekin argitzen zigun Iñaki Galdos oñatiarrak gero Xabier Mendigurenek antzerki gidoi baten bidez garatuko zuen pasadizoa. **"Los cabras": Historia ezezagun bat** zen Galdosen artikulua izenburua (*Larrun, 8. alea*) eta **Garai(a) da Euskadi**, ostera, Mendigurenen antzerkiarena.

Ezaguna da Xabier Mendiguren beasaindarraren antzerkiarekiko zaletasuna; oraindik gogoan ditugu bere *Egunkariako* artikulua eta Debako Goaz taldeak antzeztu ohi duen *Fernando, bizirik hago oraindiora*. Zorritzarek, azken urteotan ezaguna egin zaigun Yolanda Arrietaekin batera, idazle gutxi ausartu dira antzerki obrak



idazte-
ra. Baina guztiarekin ere, baditugu iazko Donostiako Hiria Antzerki Sarike-tan goi mailan egon diren bi idazle gazte.

Xabier Mendigurenen obraren ekintza, arestian esan dugun bezala, Garai hartu eta askatu zuteneko egun (ordu pare) hartan kokatzen da. Hala ere, gertakariak ez dira militar hutsak; ez, obra honek irudimen ariketa jostalari bat eskaintzen digu. Mendigurenek berak liburuan dioen bezala, "Jolas dezagun antzerki bat asmatzera (...) Imajina dezagun, irribarrez, zer izan zitekeen herri hura, nolakoa litzatekeen

Euskal Herri libre bat". Eta josteta hori hautsiz, doi-doi goardia zibilaren etorrera eta Euxebio moxkoraren azken hats-hitzaldiak agertzen zaizkigu, hau da, antzerki lanari amaiera ematen dioten osagaia dramatikoak.

Protagonistak, guk-geuk jostatuz irudika genitzakeen horietxe dira: gerrilariak, herri xehea eta, nola ez, hordia, alkatea eta apaiza. Eta batzuetan Gabriel Arestirekin gogoratu garen bezala, besteetan Unamuno etorri zaigu gogora, izanez ere, antzerki lan hone-tako idazlea ere hasiera-hasieratik antzezlea baita, bere pertsonaiak sortu eta haiekin harremanetan jarriko dena. Alabaina, oroz gain Mendigurenen arintasuna, freskotasuna (hizkuntzarekin, bizkaierarekin, oso jostalari agerri da) eta bizitasuna topatu ditugu; guzti hori bizi dugun egoera berriro ere hausnartu dezagun (agian hausnarketa horrek indarberritu gaituelakoan?); baina ez nolanahi, ez, modu intraszendenteago baten bidez baizik.

 Patxi Zubizarreta

Aholkuak

Melanoma gaiztoa

San Juan gauaz hitz egitean, ezin dugu eguzkiaren beste alderdi kaltegarri bat aipatu gabe utzi. Zorritzarek, ozono geruzaren arazoa gero eta larriagoa da eta Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) ohartarazi duenez, eguzkitan luzaroan eta babesgarririk gabe egotea erabat kaltegarria izan daiteke. Erakunde horrek aipatzen dituen datuen arabera, "melanoma gaiztoa" edo azaleko minbizia dutenak gero eta gehiago dira. Beraz, uda

gainean dugularik, kontutan izan ditzagun gomendio hauek:

- * Ahal dela, goizeko 10etatik arratsaldeko 2etara ez egon eguzkitan.
- * Azala babestuko diguten jantzi arin eta txanoak erabili.
- * Eguterak edo alderdi eguzkitsuak baztertu eta itzala aukeratu.
- * Betiere krema eta lozio egokiak erabili.
- * Eguzkitan ahalik eta denborarik gutxiena eman.



 **HERBALIFE®**

M^oAsun Epelde
Banatzaile independentea

ADI!

Hau da behin betirako zure gehiegizko pisua ezabatzeko aukera!

Interesatuak dei 881417 telefonora (4etatik 8etara)

- ⇒ Produktu naturala %100ean.
- ⇒ Appetitua kontrolatu eta normalduko duena.
- ⇒ Zelulitisa erabat kentzen du.
- ⇒ Zeure gustoko platerak jan ditzazkezu.
- ⇒ Beharrezko elikadura zelular guztia emango dizu.
- ⇒ Energia eta bizitasunean irabaziko duzu.
- ⇒ 100%eko garantiarekin: lasai geratzen ez bazara, dirua bihurtuko dizugu.

ATERPETIK BERRIA BEZALA ATERA NAHI DUENAK Legorretan "Izarra" Ostatua

Julian Garmendia "Kortatu" ibiltari ospetsuaren alaba den Maria Luisa eta Antonio Perez bere senarrak irekitako ostatuak 30 urte bete berri ditu. Bertan daude urteetan "Kortatu" eta Castillotar sukaldarien argazkiak. Legorretan N-1a zenaren alboan aurki dezakezu etxetxo polit hau, berrikuntzak egin eta harria agerian duela. Mundu guztiak ezagutzen du Izarra, nahiz eta gaur egun bandera koloreturik ez euki begibistan (Garai batean Europa guzti-koak eta EEBBekoak zituen).

30. urtebetetzea zela eta, menu anitzak eta prezio bereziak euki dituzte, arrakasta usaiean. Jende asko izaten dute ostautan, denetarik: tradiziozko pasuko jendea, Euskal Herrikoa eta Estatu-koa, Renfe-koak, ordezkariak, e.a. Moduan eskaintzen dituzte zerbitzuak eta orrialde hori eta turismo gidetan daude, Bartzelona eta Bilboko agentziek bidaltzen, dizkiete turistak; turismo bulegoetakoak ere saiatzten dira bidaiariak aterpea eta mantenuak izan ditzaten.

Mundu oso bat konfiguratzen du Izarra-eneak: tabernaz gain, barne pa-

tio eta terrazak ditu, musika eta guzti, gazteen astialdirako billar eta futbolenak, banketeetarako mahaia, e.a.



"Dena permisu guztiak betez jarria. Bertan herriko eta inguruko gazte-jende jatorra biltzen da". Taberna besterik ez dela Legorretan eta zerbitzu hori eskertzen delakoan dago etxe-koandrea. 150 lagunentzako eserlekuak badituzte eta eguraldi onarekin terraza ere bai. 40 bat lagunentzat lolekua bada. Taberna, pub atsegin moduan daukate jarria.

Izarra-koak espezialistak dira ba-

kailaua tomate eta piperrekin, egurrez erretako baserriko oilaskoa eta txuleta parrilan egiten. Iazkoan, Santana egunez, 95 lagun izan zituzten eta aurtengo festetarako 100 lagun itxaroten dituzte oilas-ko-janarako. Organizaturiko taldeek ere badakite egunak eta gauak pasatzen bertan, "Denetarik izan da hemen. Orainxe bertan 'Kelme'-ko txirrindulariei ezin diegu ostatua eman, beterik baitago".

Bukatze-ko, hona hemen asteburutako bi minuta: Entsalada mixtoa edo arrai-zopa, oilas-ko erdia entsaladaz, etxeko ardoa, flana edo marrubiak nataz eta kafea, 1.600 pzta; 5 langostino, arrai-zopa edo haragina, txuleta guarnizioaz eta entsalada, marrubiak nataz edo etxeko tarta, etxeko ardo eta kafea, 2.500 pzta; tarteko beste bi ere badira, 1.800 eta 2.300 pezetakoak. Sagardoa Legorretako eta Añorga-txikikoa darabilte. Markesak bezala jan, edan eta lo egin liteke Legorretako Izarran. Dei 806044 tfnora

 **Jito Benazko**

ZAZPI TABERNA

Andra Mari, 5 • Tfnoa: 88 69 13 • BEASAIN


OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

Karta bereziaz
gain,
bertako
babarrunak



eta ehizea,
bere-
garaian
enkarguz

Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

Idea jatorrenek ere bultzada behar
izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote

GOIERRITARRARI

**ZURE ERRENTA
AITORPENEAN
DESGRABAGARRIA**

HOBE EZAZU ZURE IRUDIA.

Varilux Comfort lente berria, MULTIOPTICASek bermatutako egokitzapenarekin.
Dagoen lenterik perfektuena distantzia luze, ertain eta laburrena ikusmen naturala izateko.

VARILUX COMFORT LENTE BERRIA. IKUSMENIK ATSEGINENA



Lehenago edo geroago...

Naturala, duen ikuspen-eremu zabalagatik, hurbiletik urrunerako aldaketa leunagatik eta buruari eta begiei mugitzeko ematen dien askatasunagatik. Eta gainera, diseinu eksklusibo, moderno eta edergarria.

Lehenago edo geroago Varilux aukeratuko duzu. Ikusiko duzu zein atsegina den.



Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradian Enparantza, s/n - ORDIZIA



...VARILUX aukeratuko duzu


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.